

#3 / 2020 MARTXOA

artelka

Desirak
narrutzen

 GEDAR

Apirilak
9 | 10 | 11 | 12 | 13
—Legutio



EUSKAL HERRIKO GAZTE

SOZIALISTON TOPAGUNEA

Osteguna

9:00 | Harrera

10:30 | Lana: obra, tailerrak, txandak eta aisia.

Afalostean | Zirkua

Ostirala

10:00 | Lana: obra, tailerrak, txandak eta aisia.

Afalostean | Ikuskizuna: Abagunea

Larunbata

10:00 | Hitzaldiak:

Politika sozialistaren esparruak:

*Generoa, soldatapeko lana, gazteria,
ikasleria, espazioen kontrola, kulturala.*

16:30 | Mahaingurua:

Gaur egungo erronka politikoak

Afalostean | Petti

Igandea

10:00 | Martxa Albertiako kanpetara

14:30 | Bazkaria

19:00 | Ekitaldi nagusia

20:00 | Kontzertuak:

- DEAD BRONCO
- BOOT BOYS
- RUDE PRIDE
- BASSAGAIN HIP HOP REGGAE
CONNECTION, MC eta DJ gonbidatuak

Astelehena

10:00 | Jasoketa lanak

18 ELKARRIZKETA

Moana War

**“EZIN DAITEKE AUKERA ASKEEZ HITZ
EGIN BOTERE TESTUINGURU HORRETAN”**



38 ERREPORTAJEA

Martxoak 8

**HISTORIAREN IRAKASPENAK
GAURKOTUZ**



66 KOLABORAZIOA

Rosa Cobo

**PROSTITUZIOA
KAPITALISMOAREN MUINEAN**



4 EDITORIALA

**PROSTITUZIOA ETA
GENERO ZAPALKUNTZA**

6 IKUSPUNTUA

Nahia Santander

**ANALISI
SOZIOEKONOMIKO
LABURRA: OFENTSIBA
KAPITALISTA ETA
EMAKUMEEN
PROLETARIZAZIOA**

11 KOIUNTURA

Beñat Aldalur

**URTARRILAREN 30EKO
GREBA OROKORRAREN
INGURUAN, SAKONTZEKO
ELEMENTUAK**

15 IKUSPUNTUA

Alain Arruti

**INDAR KORRELAZIOA,
ERRAKI ETA ESPAZIOEN
KONTROLA**

28 IKUSPUNTUA

Paul Beitia

HITZAK ETA ESANAHIAK

31 KOIUNTURA

Markel Samaniego

**BIAGGIO DE GIOVANNI
ETA ASETU EZ GINTUEN
MARXISMOA**

34 IKUSPUNTUA

Ane Ibarzabal

**MILLENNIALETATIK
Z BELAUNALDIRA**

52 IKUSPUNTUA

Martin Goitandia

**BIGARREN MAILAKO
LANGILEAK**

60 KOIUNTURA

Sabin Aranburu

**KAPITALISMOAREN
GAINDIPENA ALA
BASAKERIA: ZALDIBARKO
GERTAERAK DAKARREN
ONDORIOA**

62 IKUSPUNTUA

Aitor Bizkarra

**JAINKOAK EZ DU
DADOETAN JOKATZEN**

74 IKUSPUNTUA

Adam Radomski

**BORROKA HORIZONTE
BERRIAK: LOGISTIKA
ETA GARRAIOA (I)**

80 KOIUNTURA

Manex Gurrutxaga

**PORROTAREN
LEZIO KRUELA**

82 IKUSPUNTUA

Maddi Sarasua

**EKOIZPEN
ARTISTIKO
KONPROMETITUA**

Prostituzioa eta genero zapalkuntza

EDITORIALA

Prostituzioaren inguruko eztabaida gorakada betean dago Euskal Herrian. Ez da kasualitatea. Goranzko joera duen klase gatazkari lotuta, beste esparru batzuetan bezala, kontraposizio programatiko bat sortzen da hizpide dugun esparruan, haien aldarrikapenak eta borroka ez hainbeste prostituzioaren erregularizazio eta legeztatzean, baizik eta haren abolizioan oinarritzen duten eragile berrien eratzean adierazten dena.

Bi klase interes kontrajarriak erantzuten dieten bi korrante feministaren definizio lerroaren aurrean aurkitzen gara. Alde batetik, mugimendu liberal burgesa, prostituzioaren soldatapekotzea eta legeztatzea emakumeen askatasun eta ahalduaren baldintza gisa defendatzen duena; beste alde batetik, feminismo proletarioak, aitzitik, praktika horietan emakumea subjektu debalatu gisa kulturalki eraikitze prozesu bat eta zapalkuntza-praktika espezifiko bat aurkitzen ditu, zapalduen generoari atxikia eta eskusiboa dena. Beraz, emakumeen askatasunaren kontzeptuari buruzko bi gogoeta eta proposamen ditugu aurrean, baina baita gizarte osoaren askatasunaren kontzeptuari buruzkoak ere.

Mugimendu erregulazionistak, merkataritza-as-katasunari datzekion berdintasun eta askatasun printzipioak bere eginez, emakumearen ahalduak etekin kapitalistaren oinarri den lan-indarraren salerosketa-kontratua gizarteko eremu guztietara zabaltzea eskatzen duela uste du. Hala, prostituzioa legeztatze eta arautze neurrien aurka egitea emakumeak bere gorputzaren gainean duen gaitasun askearen aurka egitea dela uste du, baita gorputz hori lan-indar gisa saltzearen truke soldata bat eskuratzeko askatasun kapitalistaren aurka egitea ere. Edo, beste era batera esanda, as-

katasuna besterentzeko edo saltzeko askatasuna, ikuspegi horretatik, ahalduen-prozesu gisa aurkeztu da, sistema kapitalistaren eta klase-esplotazioaren oinarriak baliozkotzat ematen dituelako. Beraz, ahalduen klasista da, burgesiarentzat bote-re pribatuaren ekoizpenean oinarritzen dena, baita emakumeen esplotazio sexualaren gainean oinarritzen den etekinaren ekoizpen adarrean ere.

Esplotazio sexualaren adar horri dagokionez, etekina ekoizteko prozesua zuzenean egiten da, prostituzioaren negozioaren bidez, eta zeharka, ekoizpen kapitalistaren beste adar batzuetan etekina handitzen laguntzen duen emakumearen debalazio kulturalari ekarpena eginez. Salerosketa formalaren eremuan ere, zeinaren gainean oinarritzen baita askatasunaren eta berdintasunaren ideia oro, eta klase zapalkuntzaren edukiaz abstrakzioa eginez, adierazgarria eta adierazteko modukoa da saltzen ari dena emakumea sexualki jabetzeko eta kontsumitzeko eskubidea izatea, eta, beraz, ez lan-indarraren edozein salerosketa, baizik eta zapalkuntzan eratzten den eta zapalkuntzak eratzten duen berariazkoa eta eskusiboa den salerosketa. Soilik guztiz zinikoa den adimen batek eta zapalkuntza kapitalista babesten duen posizio burges klasista batek ezkuta dezake aipatu errealtatea, noraino eta lan indarraren zapalkuntzaren existentzia onartzera iristeraino, errealtate hori emakumeen zapalkuntza sexualaren esparrura zabaldu eta normalizatzerantz ertsitzen den bitartean, modu arautuan eta baldintza berdintasunez zapaldua izateko eskubidearen babesean.

Ikusten dugunez, mugimendu erregulazionistaren aldarrikapenak eta praktikak saihestu egiten du lan-indarraren salerosketaren edukia, klase-za-

palkuntzaren esparru orokorra, erosteko eta saltzeko harreman formal soilak berdindu egiten gaituela eta askatasun-ariketa bat dela argudiatuz. Hori dela eta, ez dute zalantzarik egiten prostituzioaren proposamen abolizionistek - *emakumeen sexu-esplotazio askearen aurka egiten duten neurrian*- emakumeen gorputza kontrolatzea bilatzen dutela seinaltatzeko. Hori guztia manipulazio posibilitataren estrategia zaharraren bidez sozializatuta, erabaki-esparrua bi aukeratar mugatzen duena, legalki zapaldua izatea edo legez kanpo zapaldua izatea, hirugarrena ukatuz, zapalkuntza kapitalistaren amaierarako bidea irekitzen duena.

Zuzenagoa litzateke prostituzioa legeztatu nahi dutenei proxenetismoa eta proxeneta legeztatu eta praktika hori Estatuaren egitura kapitalistak araututako eta normalizatutako jarduera bihurtu nahi izatea leporatzea. Izan ere, bere gorputzaren gaineko ustezko ahalmen askearen truke onura bat lortu beharrean, emakumea besteren onuraren ekoizle bihurtzen da, bere gorputza proxeneta baten jabetza da, dirua duten bortxatzaileekin partekatzea erabakitzen duena, soldata bitarteko izanda emakumearen gorputzaren gaineko jarrera eta jabetza pribatu hori erreproduzitzeaz arduratzen den proxeneta. Ez dirudi soldata bat lortzea eta, horrekin batera, besteren onura sortzen duen zapalkuntza-kontrata berritzea helburu duen jarduerak ahaldunduz denik, ezta askatasunez gauzatzen denik ere. Justifikatu ere ez du egiten, ezta lasaitu ere, soldata-harreman hori langile guztien baldintza izateak, eta ez bakarrik prostituziora behartuta dauden emakumeena.

Emakume bati sexu-abusuak egiteagatik egiten zaion ordainketa bakoitzaren atzean bortxaketa bat dago, haren borondatea, sinple eta lauki, ez baita emakumearena, bere lan indarra saltzera behartutako langile klasearena ez den bezala, baizik eta ekoizpen erlazio sozial kapitalistan besterenduta aurkitzen da, eta bere subjektuan, burgesian, pertsonifikatua. Prostituzio-ekintza bakoitzean, beraz, emakumea bi aldiz bortxatua da: lehenik kapitalistaren mende, bere gorputzaren gaineko eskubidea saltzen dion neurrian; gero, dirua duenaren mende, gorputz hori kontsumitzen duena. Beraz, salmenta-ekintzan bertan, emakumearen gorputzaren kontsumoarekin gauzatzen den bortxaketa bat dago potentzian, sexu-eduki eksklusibo bat tarteko gainerako salmenta-ekintza guztietatik bereizten dena eta langile-klaseko emakume guztiak diziplinatzen eta zapaltzen dituena. Hori da legeztatu nahi den ahaldundze-praktika.

Aipatutakotik ondorioztatzen da ezinbestekoa

dela klase sozialari lotutako berariazko diferentzia bat sartzea prostituzioaren praktika behar bezala determinatu ahal izateko: sexu-ekintza gauza bera ez den bezala tartean salerosketa egonda edo ez egonda, ez da gauza bera prostituitzea, langile klaseko emakumearen gain gauzatutako klase mende-kotasun ekintza gisa, eta kapitala lortzea zure gorputza baliatuta. Era berean, pentsa liteke, ilusioz, proxenetaren bitartekaritza gabe prostituzioan modu autonomoan aritzeko aukera. Horrek, ordea, ez du ezertan aldatzen aipatutakoa: langile klaseko emakumea, debaluatutako emakumearen kultur ekoizpena eta etekin kapitalistaren ekoizle den soldataren legearekiko mende-kotasun formala.

Horrela, bada, kapitalismoak irauten duen bitartean, prostituzioaren negozio proxenetak eta bortxatutako, aukeraketa gaitasun guztiez gabetutako eta prostituitzera behartutako emakume langileak iraungo dute. Ez da kasualitatea prostituzioan aritzen diren emakumeak pobreak izatea. Bere lan indarra ere ez du inork saltzen inolako hertsapen sozialik gabe, are gutxiago prostituitu. Bada, esplotazio harreman bat eskubideen eta berdintasunaren aldeko ustezko borrokarekin ezkutatzea mugimendu erreformistaren ohiko praktika da, bere aurkakotasuna prostituzioaren eta soldatapeko esplotazioan oinarritutako gizartearen aurkako borroka iraultzailean aurkitzen duena, benetako ahaldundze baten alde, eta ez ilusiozkoa. /

ANALISI SOZIOEKONOMIKO LABURRA: OFENTSIBA KAPITALISTA ETA EMAKUMEEN PROLETARIZAZIOA

IKUSPUNTUA

Nahia
Santander



Artikulu honek lan-merkatuak emakumeak izan duen bilakaera aztertzea du xede, haiek betetzen dituzten lanpostu nagusiei eta lanpostu horien ezaugarriei erreparatuta. Helburua da genero auziaren egoeraren azterketa sistematikoari hasiera ematea, ezinbestekoa baita fronte honetan ere politika antagonista bat garatu ahal izateko.

EGUNGO TESTUINGURU SOZIOPOLITIKOA: KRISI KAPITALISTA, EMAKUMEAREN LAN-INDARRAREN DEBALUAZIOA ETA LAN-MALGUTASUNA

Hasteko, azpimarragarria da azken hamarkada hauetan zehar, mundu mailako kapitalismoaren eraldaketekin batera, lan-merkatuan feminizazio agerikoa ari dela gertatzen. 70eko hamarkadaren ondorengo urteetan, lan-merkatuan sartu ziren emakume kopuruaren igoera nabarmen handiagoa izan zen gizonezkoena baino, eta hori izan zen, hain justu, garai horretako ezaugarriarik esanguratsuena. Gainera, ez da ahaztu behar emakumeen presentzia sistematikoa oso ezaugarri jakinak zituzten lanpostuetan gertatu zela: nagusiki lanaldi partzialak zituztenetan, lan-malgutasun handia zutenetan, soldata baxuak zituztenetan...

Literatura feminista zabal batek tinko argudiatzen du lan-baldintza kaskarrek generoa dutela. Hori erabateko irmotasunez baieztatzeko tresna analitiko nahikoren faltan, ni honako hipotesi honen alde lerratuko naiz: jada 2000. urtetik zenbait autorek planteatu duten soldata-erregimen berri baten sorrera, lan malguetan zein ezegonkorretan oinarritzen dena. Horien arabera, emakume langileak ordura arte nagusitzen ziren enplegu-arauak

Artikulu honetan aurkezten ahaleginduko naiz gazte-sektoreak ez ezik, emakume langileok ere erabili egiten gaituztela ofentsiba burgeserako tresna moduan, hots, etorkizuneko lan- eta bizi-baldintzak langile-klase osora hedatzeko bitarteko gisa

desegiteko tresna moduan erabiliak dira, eta horrela, soldata-erregimen berria langile-klase osora hedatzeko erreminta ezin hobea bilakatzen dira.

Urte batzuk geroago, neurri batean, baieztatu egin da hipotesi hori. Inperialismoaren erdigunetan dauden herrialdeen proletarizazio gorakorren ondorioz, langile-klaseko gero sektore gehiago lan-baldintza ezegonkorretara bultzatzen dira, eta euren oinarritzko erreprodukzio-beharrak asetzeko nahikoa ez den soldata jasotzen dute. Horren erakusgarri da belaunaldi gazteen eta helduen arteko haustura ekonomikoa: gazteak dira burgesiaren proletarioak inposatu nahi dizkion kultura- eta soldata-aldaketan abangoardia.

Gauzak horrela, artikulu honetan aurkezten ahaleginduko naiz gazte-sektoreak ez ezik, emakume langileok ere erabili egiten gaituztela ofentsiba burgeserako tresna moduan, hots, etorkizuneko lan- eta bizi-baldintzak langile-klase osora hedatzeko bitarteko gisa.

EMAKUMEEN LAN-MERKATUA: FEMINIZAZIOAREN FENOMENOA ETA PROLETARIZAZIOARI BURUZKO DATU ARGIGARRIAK

Lehenago ere aipatu dudanez, azken mendean gertaturiko munduko kapitalismoaren eraldaketek areagotu egin dute «lan-indarraren feminizazio» gisa ezagutzen den fenomeno, eta horrek emakume langileen bizi- eta lan-baldintzak okertzea eragin du. Hori, inondik ere, lanaren banaketa sexual latzaren emaitza da, zeinak zilegiztatu egiten duen emakumeak gutxietsitako lan-alorretan kontratatzea eta soldata baxuagoak izatea.

Lanpostuak jarduera-adarretan banatzen dituen

2011ko datuei erreparatuta, ikus daiteke, alde batetik, gutxi direla emakumeen kontzentrazioa gizonena baino handiagoa duten adarrak. Gizonen artean nagusitzen diren hamar adarren artean, sei zerbitzuetaoak dira eta beste lauak bigarren sektorekoak. Emakumeei dagokienez, hamarrak dira zerbitzuetaoak. EAEn, enplegu-kopuru handiena sortzen duten 16 jarduera-adarren artean, zazpitan bakarrik da emakumeen kopurua %60tik gorakoa: etxeetako jarduerak (%90), beste zerbitzu pertsonal batzuk (%84), osasun-jarduerak (%77), txikizkako merkataritza (%70), hezkuntza (%69) eta ostalaritza (%62). Emakumeen eta gizonen arteko lanpostu-banaketa ez da parekidea, eta horrek dudarik gabe eragina du sektore batzuk maskulinoak eta beste batzuk femeninoak izatean.

Bestalde, korrelazio zuzena dago zenbait lanbidetan emakumeek duten kontzentrazioaren eta ordainsarietan dagoen generoen arteko aldearen artean: emakumeen ehuneko handiena duten okupazioak dira, hain zuzen, orduko batez besteko irabazirik txikienak dituztenak. Ostalaritzan, emakumeek jarduera-sektore guztietako soldatarik baxuena jasotzen dute. Era berean, «administrazio-jarduerak» eta «zerbitzu osagarriak eta beste zerbitzu batzuk» sektoreetan, Estatu osoko soldatarik txikienak jasotzen dituzte. «Segregazio horizontal» dei geniezaiokeen fenomeno horri María Pasos Moránek «segregazio bertikal» deitzen diona gehitu behar zaio: nagusiki emakumeena den eskulana zerbitzuetan, osasun-jardueretan eta pertsonen zaintzan zein kualifikatu gabeko lan-sektoreetan kontzentratzen da, eta lanpostuen batez besteko soldatetan soldata baxuenak kobratzen dituzte. Gainera, esan behar da kualifikatu gabeko

Nahia Santander

8 Arteka





Beharrezkoa da sistematikoki aztertzea zer instituzio eta bizimoduren bitartez antolatzen duen burgesiak lan-esplotazioa, horien aurrean proletalgoak bere burua babesteko tresna efektiboak gara ditzan

emakume langile gehienak betiko gelditzen direla eskala horretan.

Lehen esandakoari gehitu behar zaio lanaldi partzialak emakume langileen lan- baldintzen ezaugarri orokorrenetakoak bilakatzen ari direla; izan ere, agerikoa da haren aldeko apustua 2012. urteko lan-erreformen, baita 2013aren amaieran onartutako aldaketetan ere. EBko partzialtasun-tasen datuek adierazten dute partzialtasuna nagusiki emakumeen kontua dela. Lanaldi partzialeko kontratuetatik %73,86 emakumeek egiten dituzte, hau da, 4 enplegutik 3. Emakumeak horrelako lanaldietara bultzatzen dituzten arrazoi nagusiak kualifikaziorik eza, lan-sektorea bera (gehienbat zaintza-sektorean egiten badute lan) eta lanaldia familia-betebarrekin uztartu beharra dira. Gainera, lanaldi partzialeko enpleguen orduko irabazia lanaldi osoko enpleguena baino %30 txikiagoa da. Beraz, lanaldi-mota horren feminizazioa ikusita, batez besteko irabaziak oso desberdinak izango dira gizon eta emakume langileentzat.

Aipatu ditudan ezaugarri horien guztien (lanpostu ezeengonkorren, soldata negargarrien, eta partzialtasunaren) sintesia «zaintza-lanen merkantilizazioa» deiturikoan ikus daiteke. Aintzat hartu behar da zaintzaren alorra (gehienbat mendekotasuna duten hirugarren adineko pertsonen zaintza izaten da) metaketa kapitalistaren beharrei (lan-indarraren devaluazioa) eta eszenatoki sozio-demografiko berriei (populazioaren zahartzea) erantzuteko formula ohikoena dela, batez ere Europa Hegoaldeko herrialdeetan. Hala, 2013an, sektore horrek emakumeen enplegu osoan duen garrantzari dagokionez, EAE lehen postuetan zegoen.

Laneko ezeگونkortasunak, diru-sarrera baxuak, gizarte-prestaziorik eza eta lanaldi gogorrak, eta beren ondorio diren akidura eta isolamendu soziala zaintza-lanen merkantilizazioaren ezaugarri batzuk baino ez dira. Hori gutxi balitz, beste hainbat era-

gozpen ere badaude, esaterako, langabeziagatiko babesgabetasunik eza edo Gizarte Segurantzako kotizazioen kostua handitzea lehen etapetan.

Gainera, batez ere Europa Hegoaldeko herrialdeetan, zaintza-lanen merkantilizazioak batik bat emakume migratzaileei eragiten die. Adibidez, EAEn, hamahiru mila eta hamabost mila artean zegoen lanposturen bat duten emakume migratzaileen kopurua, 2009 eta 2013 urteen artean. Azken urte horretan, estatistikek diotenez, etxeko lanen sektoreko lanak izan ziren emakume migratzaileen lanpostu gehienak (%42).

ONDORIO MODURA

1. Ondoriozta dezakegu lanaren banaketa sexualak hainbat forma hartu dituela garaian garaiko kapitalaren beharrei erantzuteko, betiere emakumeen lan-indarra are gehiago devaluatzeko helburuz, eta, aldi berean, langile-klase osoaren lan-indarra ere devaluatzeko xedez.

2. Langile-klaseko sektore zapalduak (migratzaileak, gazteak, emakumeak) erabiltzen dira lan- eta bizi-baldintzen modernizazio kapitalista gauzatzeko. Lan-ezeگونkortasuna eta lan-malgutasuna moduko fenomenoak langile-klaseko sektore zaurgarrietan inposatzen dira, hala proletalgo osoa diziplinatzeko bere etorkizuneko bizi- eta lan-baldintzak izango diren horietan.

3. Beharrezkoa da sistematikoki aztertzea zer instituzio eta bizimoduren bitartez antolatzen duen burgesiak lan-esplotazioa, horien aurrean proletalgoak bere burua babesteko tresna efektiboak gara ditzan. Soldata-erregimena dominazio burgesaren mekanismo soziala da, eta, ondorioz, beharrezkoa da hura funtzionarazten duten lanpostuak, instituzioak eta antolakuntza politikoa ulertzea, horrela bere arrazionalitate politikoa ulertzeko eta hari aurre egiteko. Horretarako saiakera xumea izan da nirea. /

Urtarrilaren 30eko greba orokorraren inguruan, sakontzeko elementuak

Astebete igaro da pasa den osteguneko greba orokorretik, eta artikulu honetan grebaren analisiari ekarpen xume bat egiteko asmoz arituko naiz. Izan ere, grebaren inguruan polemika ugari egon dira, eremu politiko ezberdinetatik abiatu direnak eta askotariko zergatiei erantzun diotenak. Nire aldetik, *Gazte Koordinadora Sozialistak* grebaren inguruan garatutako balorazioan sakontzen ahalaginduko naiz, uste baitut garrantzia handiko zenbait puntu jorratzen dituela. Ikuspuntu pertsonal batetik elementu horietan sakontzeko saiakera izango da nire iruzkina.

Bide batez, Eneko Compains Sortuko kideari erantzun modura ere irakurri daiteke honako testua. Izan ere, Compainsen ardura bilakatu da Euskal Herrian abian den mugimendu komunista eta proletarioa “komunismo arduratsuz” mozorrotuta borrokatzea, eta greba orokorreko GKSren irakurketa erantzun dio oraingoan. Erantzuna *Twitter* bidez eman du, jakitun izanda

horrelako espazioak ezin hobeak direla iritzi bizkorrak eta hausnarketarik eskatzen ez dutenak zabaltzeko. Esan beharrik ez dago ere komunismoak eta populismoak ez daukatela zerikusirik, eta Sortu eta Compains bigarrenaren parte direla. Eneko Compainsen argudioak herritarren zentzu komuna erreproduzitzean oinarritzen dira, etekin politikoa biltzeko helburuarekin. Bestela esanda, GKSren irakurketek harridura eta samina sortzen duten bitartean – posizio aldaketak eragiten baitituzte, eta norberaren ikuspuntua aldatzeak inplikazio praktikoak, pertsonalak eta emozionalak ditu –, Compainsen argumentuek auto-konplazentzia eta gogobetetasuna eragiten diote interpelatutako irakurleari. Komuniston ardura da agerian ez dauden elementuak argitara ateratzea, zentzu komuna behin eta berri ezbaian jartzea eta kritikarako elementuak betiereko bilakatzea. Beraz, heziketa politikoaren –beste modu batera esanda, norbanako ereduaren edo modelo militantearen – nolakotasuna-

ren inguruko talka nabarmena existitzen da Sorturen eta komunismoaren artean.

GREBAREN TESTUINGURU EKONOMIKO ETA POLITIKOA

Grebaren deitzaile ofizialek mahai-gaineratutako aldarrikapenak “Ongizate Estatuaren” programa klasikoan dute bere oinarria. Euskal Herriko ezkerreko mugimenduetatik Europan garatzen ari diren dinamika politiko aurrakoei begiratzen zaie, gurean garatu daitezkeen eredu sozioekonomikoak topatu asmotan. Europako ezkerreko mugimendu entzutetsuenen artean oinarritzko adostasun bat existitzen da ordea: II. Mundu Gerra osteko paktu sozialaren oinarriak berregin behar dira, eta beraz, imitatu beharreko ereduak mendebaldeko demokraziak dira, sozialismo errearen esperientziatik irakaspenak atera beharrean. Hala ere, mendebaldeko demokrazietan ongizate estatua “berpizteko” abagune gero eta txikiagoa existitzen dela frogatu da

Grebaren deialdi ofizialak erdi mailako klasearen programa politiko eta ekonomikoaren adierazpen politiko-sindikal zehatz baten kurtsoko plangintzari erantzun dio, Euskal Herriko ertain klasearen adar euskal-nazionalistaren premia taktikoei, hain zuzen ere

azken hamarkadetan, eta testuinguru honetan ideologia zein estrategia nazionalistak lehen lerrora mugitzen dira. Ekoizpen eredu kapitalistaren bitartez ez dagoenez mundu osoko biztanleriaren oinarritzko beharrianak asebetetzeko adina errekurtso eta baliabide ekonomikorik, lurralde jakin bateko herritarren ongizatea lehenesten dute ertain klaseko mugimenduek, herrialde ezberdinetako langileen arteko lehia eraginez eta zentro-periferia ardatz inperialista ontzat emanda. Hauxe izan da XX. mendetik jaso dugun oinordetza sozialdemokrata, zeinak azken hamarkadako krisialdi ekonomikoaren eraginez eta iruditegi politiko komunistaren faltan, ezkerreko mugimenduak nazio-estatuen barneko joko-zelaian giltzapetu eta inpotentziara kondenatu dituen. Aipatu berri dudan antolaketza limiteak onartzen dituzte gure herriko sindikatu eta mugimendu politiko ezkertiar eta aurrerakoiek, izan euskal nazionalistak, espainolistak zein afrantsesatuak. Nazio-estatuetara mugatutako ekinbide politikoak ideologia nazionalista eta identitarioen bitartez sostengatzen dira, eta hauei, egun, kontzeptu liberal-demokrata elkar-lotzen zaizkie; “lan duina”, giza eskubideen aldarrikapenak eta antzerakoak. Honenbestez, gizarte burgesaren oinarriak kolokan jarri gabe eta hauekiko osagarriak diren kontzeptuak erabiliz

hezurmamitzen da erdi mailako klasearen diskurtsoa eta praktika politikoa.

DEIALDI OFIZIALAREN HELBURUAK

Dudan ikuspuntu orokorra honako hau da: grebaren deialdi ofizialak erdi mailako klasearen programa politiko eta ekonomikoaren adierazpen politiko-sindikal zehatz baten kurtsoko plangintzari erantzun diola, Euskal Herriko ertain klasearen adar euskal-nazionalistaren premia taktikoei, hain zuzen ere. Urtarrilaren 30eko greba indar erakustaldi bat izatea bilatu dute deitzaileek, deialdi ofizialeko eragileen aurkari politikoen kontra erabiltzeko asmoarekin eta Euskal Herriko agenda politiko orokorraren gidaritzak eskuratzeko helburuarekin. Beste alde batetik, ELA eta LABen arteko harremana sendotzea ere grebaren helburuen artean zegoen, azken boladan sindikatuen artean jazo diren tentsioak baretzera begira. Aipaturiko helburuak erdiesteko, grebako deitzaile ofizialek eskura dituzten indar-guneak erabili dituzte: afiliatu kopurua eta mobilizazio gaitasuna. Greba deialdi hau, beraz, askotariko mugimendu politiko eta sindikalekin konpetentzian gauzatu da: EAJ eta Elkarrekin Podemos eremu elektoralean, batez ere EH Bildu indartzera begira, CCOO/UGT esparru sindikal orokorrean eta Ezker Abertzale

Ofizialistaren ezkerrera aurkitzen diren mugimenduak mobilizazio sozialari eta hegemonia militanteari dagokionean.

Grebaren jarraipenaren datuei erreparatzen badiugu, ikus dezakegu nola euskal-nazionalismo demokrata eta aurrerakoia indartsu dagoen eremu geografikoan grebaren segimendua handia izan dela. Kontrara, ELA eta LABen afiliazioa txikia den lekuetan grebaren segimendua baxua izan da orokorrean. Bestalde, sindikatuetan izena emanda duten lanpostu finkodun langileak, profil aurrerakoia duten funtzionarioak – irakasleak, hainbat administrazioetako langileak etab. –, komertzio txikia – eremu nazionalistatan behintzat – eta bestelako lan-eremu sasi-aurrerakoia – kooperatibistak, adibidez – izan dira gehienbat grebari atxikimendua eman dioten langile-prototipoak. Proletalgoa greba egiteko zailtasunen aurrean aurkitu da, eta ziurgabetasun laborala pairatzen duten langileen artean grebaren jarraipena txikia izan da. Honenbestez, greba egiteko zailtasun gutxienak dituzten sektoreak mobilizatu dira oro har, eta beste behin ere, proletalgoaren zatirik handiena jokoaz kanpo utzi dute.

Apunte modura, proletalgoaren inguruan dugun erabilera bikoitza da: estrukturala eta politikoa. Definizio estrukturalak ekoizpen eremuko posizioari erantzuten dio, langileriaren

estratu xumeenei erreferentzia eginez. Langileria xumeaz ere hitz egin dugu sarritan, proletalgoaren definizio estrukturalaren sinonimo bezala. Adiera politikoan, proletalgoaren interes historikoez mintzo gara, komunismoaren parekide modura. Marxek argi utzi zuen bezala, ez dago komunismorako aukerarik proletalgorik gabe.

BUROKRAZIA ETA GREBAREN DEIALDIA

Deialdiaren antolaketa dagokionez, *greba komiteak* osatu ziren herri eta auzoetan, greba baino hilabete lehenago jarri zirenak martxan, gutxi gora behera. Euskal Herrian osatu ziren komite bakoitzean aurrera eraman zen jardunaren ezagutza osoa izan gabe, oro har esan dezaket sindikatuen kontrol pean garatutako dinamikak izan zirela. Pentsamendu estrategikoa elikatzeko, ikuspuntu kontrajarriak aurrez aurre eztabaidatzeko eta klase kontzientzia hezurmamitzeko espazioak izan beharrean grebako deialdiaren propaganda egitera mugatu ziren komiteak. Horretaz gain, lantokietan greba deialdiaren zabalpena sindikatuen kontrol pean burutu zen – komiteetan puntu hau eztabaidatzeko aukerarik eskaini gabe –, eta kasu askotan grebaren berri azken momentuan eman zitzaient langileei, mobilizazio deialdiak barne. Gainera, langileriaren zati handi batek ez zituen greba egiteko motiboak ezagutzen. Hori arrazoia, greba aldarrikapen abstraktuen arabera eta interes alderdikoei erantzunez deitu izana dela uste dut.

Dena dela, **GREBA OROKORRA** deitu zuten urtarrilaren 30ean, eta honekin langileria osoa eta bere baitan antolatzen garen mugimendu oro interpelatzen gintuzten zuzenean. Bloke propioak ezeztatze argudioa eta aitzakien faltan, grebaren deitzaileek hiriburuetakoa manifestazio nagusietan deialdi berezituak onartu behar izan zituzten, diskurtso eta jarduera partikularrekin. Deitzaile ofizialek “batzea den guztiak ekarpena egiten du” zioen mezua helarazi zieten bloke proletarioetako arduradunei grebaren aurre-

tik, eta mobilizazio egunean manifestazio “ofiziala” eta bloke proletarioa banatzen zituen kordioak osatu zituzten, Donostian eta Iruñean. Grebaren deitzaileek mobilizazioetatik komeni zitzaient argazkia ateratzeko asmo irmoa zuten eta horretarako ñabardura txikienak ere koordinatua, kontrolatua eta aurreikusita egon behar zuen.

Parte-hartzearen, aniztasunaren eta antzerako estalduren atzean dinamika autoritarioak eta burokratak ezkutu zituzten grebaren antolakuntzan. Parentesi modura, okerra deritzot burokratak eta liberatuak sinonimo bezala tratatzeko dugun ohitura. Izan ere, liberatu izate hutsak ez zaitu bat-batean burokrata egiten, eta aldez, burokrata asko ez dira inongo antolakundeen partetik liberatuak. Lehengora itzuliz, deialdi ofizialak parte-hartze kuota zabalak antzeztu nahi izan zituen, errealtatean sindikatuen arteko azpikeriak eta kontrolatzen ez dituzten mugimenduekiko bazterketa eta seinalamendua sustatu zirenean. Uste dut parte-hartze erreala ahal bezain beste langile grebaren antolaketa parte izatea dela, eta horretarako, grebaren egitaraua eta dinamika orokorra langileriaren sektore zabalekin batera zehaztu behar litzatekeela. Kontrara, edukia aurretik ekoizti ostean langileria argazki jendetsuak ateratzera deitzea eta norbere buruari zilegitasuna emateko mobilizatzeak ez dauka parte-hartzearekin zerikusirik. Kontu hauetan ez dago aitzakiarik, eta ez du balio langileriaren inkontzientziari, pasibotasunari eta despolitizazioari errua botatzea.

MOBILIZAZIO EREDUA ETA ZERGATIAK

Urtarrilaren 30eko greban gainbalioaren ekoizpena ez zegoen jo puntuan, eta horren frogak da enpresa handi gehienek normaltasunez burutu zutela euren jarduna. Merkantzien ekoizpena eta zirkulazioa arazorik gabe errealtatu izana problematikoa da grebaren efizientziaren ikuspuntutik; izan ere, burgesiak ez du kalte ekonomikorik jasaten eta proletalgoak greba egiteko

dituen aukerak zailtzen ditu. Haatik, zenbait lekutan piketeak kale-bira bihurtu ziren, saltokiak zabalik zituzten merkatari txikiekin zein enpresa lokalekin konfrontazioa ekidinda. “1 vs. 99” eta “herria vs. oligarkia” eskemei jarraituta, multinazionalak, banketxeak eta korporazio internazionalen jarduna salatu zen, maila lokaleko enpresari zein merkatari esplotatzaileekiko gutiz bestelako trataera erakutsi ostean. Ondorioz, ekoizpena geldiarazteko ekintzak – piketeak eta sabotajeak – burutu beharrean manifestazioek hartu zuten garrantzia, bake-zaletasuna nagusi izanda.

Ernaik eta LAB sindikatuak, oro har, irudi erradikala erakutsi nahi izan zuten, baina oraingoan ere asmoak eta itxurak kontraesanean sartu ziren ikuspuntu iraunkoraren ardazteko dituzten egiturazko kontraesaneekin. Gaur gaurkoz, Ernaik erradikaltasuna erakutsi behar izatearen arrazoi nagusia mugimendu sozialista gaztearen existentzia aurkitzen dugu. Erradikaltasun errealean mugak EH Bilduren estrategiara azpiratuta egoteak ezartzen dizkio Ernairi, baina GKSrekin eta IArekin lehitzeko ardura dutenez beharrezkoa zaie erradikaltasuna antzezteko, beste zenbait konturen artean bizi baldintza proletarizatuak dituzten euren militanteak iraunkor sozialistaren alde lerratu ez daitezen.

ILDO SOZIALISTAREN PAPER A GREBAN

Ildo Sozialistaren aldetik, gure aurreikuspenetatik kanpo zegoen jazoera bati erantzun genion, greba orokorrera batzeko hautua eginaz eta eskura genituen indarrak proletalgoarentzat greba posible egitera bideratuz. Jakitun gara gure jarduerak gaur-gaurkoz muga nabariak dituela masa lan lerroei erantzuterako orduan, eta horregatik ebatzi genuen grebaren alde egin genezakeen lan eraginkorrena ditugun indarrak batzea zela. Ikastetxe eta herri zein lantokietan piketei laguntza eman genien edo gureak propioak burutu genituen – kasuaren arabera – eta maila lokaleko

Uste dut tranpatia dela Euskal Herriko sindikatu nagusien eta jaio berria den mugimendu baten arteko konparaketa egitea, indar berdinen arteko talkaren existentzia simulatuz eta mobilizazio ahalmen parekidea dugula iradokiz

zenbait mobilizazioetara eta hiriburuetarako mobilizazio nagusietara langile batasunaren aldeko aldarria eraman genuen, ekimen gehiagoren artean.

Uste dut tranpatia dela – Eneko Compainsek egin duen modura – Euskal Herriko sindikatu nagusien eta jaio berria den mugimendu baten arteko konparaketa egitea, indar berdinen arteko talkaren existentzia simulatuz eta mobilizazio ahalmen parekidea dugula iradokiz. Nire iritziz, konparatu beharreko elementuak guztiz bestelakoak dira: greba egunean garaturiko ekin-tzen asmoak, zentzu estrategikoa eta efektibotasuna neurtu beharko genituzkeela uste dut. Gainera, greba dei-

tzeko inizatiba hartu zuten eragileek deialdira beranduago batu zirenekin alderatuta ardura bikoitza dute greba orokorraren emaitzekiko. Ezin dugu ahaztu langile klasearen bizi baldintzen aldeko borrokaren inguruan ari garela, ez alderdi zein mugimendu partikularren arrakastaz.

ONDORIOAK

Testuan zehar esandakoak ondorengo puntuetan laburbiltzen saiatuko naiz:

- Deialdi ofiziala puntu eta komekin ez jarraitzea ez da langile klasearen barnean zatiketa bultzatzearen baliokidea. Ikuspuntu honek ondorengo aurre-suposatzen du: Grebaren deitzaileen – Eskubide Sozialen Karta – programa eta planteamendua estrategia proletario bat hezurmamitzeko bide zuzena direla. Aitzitik, langile batasunaren aldarria langile guztientzako aukera eta baldintza estrategiko berdinaren kontsignari lotuta dago. Kontzeptu horretan, beraz, ez dago langileen artean zatiketa eragiteko ez asmo ez betarik. Zatiketa, kontrara, langileen arteko dibisio ekonomiko eta politikoekin amaitzen ez duen estrategiak eragiten du, hots, interklasismoak, zeinak langileriaren goi-kapen eta burgesia txikiaren arteko aliantza lehenesten duen proletargoaren kalterako.

- Kritika teorikoa, politikoa eta organizatiboa burutzeak ez dauka greba orokorra saboteatzearekin zerikusirik. Kontrara, beti izango du gaurkotasuna ekinbide ezberdinen arteko kritika eta eztabaidea sustatzeak, langileriaren interes estrategikoen alde irakaspenak atera nahi ditugunontzat gutxienez. Eztabaidea hauetan pertsonalismoek, autokonplazentziak eta jarrera biktimistek ez daukate tokirik. Aldiz, teoriari, kritikari eta arrazionaltasunari daukaten garrantzia aitortu behar diegu.

- Greba orokorra langile klasearen heziketa estrategikorako eta borrokarako erreminta eraginkorrena da, eta uste dut zentzu hori bera eman behar

geniokeela gisa honetako deialdiei. Horretarako, langile guztien greba egiteko aukerak bermatzea derrigorrezkoa da, langileria grebaren antolaketaren parte izateko mekanismo eraginkorrek eratzearekin batera. Greba egunean ekoizpena gelditzeak dauka lehentasuna, eta eskura ditugun indarrak norabide horretan kokatu behar ditugu aurrenekoz.

- Greba orokorra langile klase osoaren erreminta estrategikoa da, eta bertan alderdi politikoen, sindikatuen eta bestelako eragileen markak, siglak eta propaganda bigarren plano batean geratu behar dira. Greba orokorrak, honenbestez, ezin dira mugimendu bat edo besteren jabetza bezala aldarrikatu.

- Greba deitzen zuten sindikatuen eta eragile politikoen bolumena eta mobilizazio gaitasuna kontuan hartuta, oro har esan dezakegu urtarri-laren 30eko deialdian ez zutela euren erreferentzia handitzea lortu. Izan ere, ELA eta LAB sindikatuak antolakuntza ahalmen egonkorra duten lekue-tatik haratago gutxi zabaldu zen greba deialdia.

- Azkenik, testuaren irakurleoi erreminta mantentzera deitzen zaituztet. Izan ere, ondorengoaren aurrean ohartarazi nahi zaituztet: Hauteskunde atarian gaude, eta aurreikusgarria da datozen asteetan EAJk EAEn edota PSNk Nafarroako Foru Komunitatean langile klaseri zenbait kontzesio txiki ematea. Sindikatuak greba egunaren ustezko arrakastari eta mobilizazio sindikalari egotziko diote kontzesioaren zergatia. Mobilizazio sozial zein sindikala gobernu autonomikoengan presio elementuak badira ere, argi eduki behar dugu EAJren edota PSNren kontzesioek bozka bilketari erantzuten diotela eta langileria desmobilizatzeko helburu argia dutela. /



INDAR KORRELAZIOA, ERRAKI ETA ESPAZIOEN KONTROLA

IKUSPUNTUA

Alain
Arruti



Sarritan diogu antolakuntzarik ezean proletalgoa berea dena defendatzeko baliabide faltan ageri zaigula. Langile kontrolpeko espazioak sortu bai, baina, nekez mantendu ahaliko direla menderatzaileen interesekin talka egiten badute. Jabeenak dira legea, polizia eta komunikabide handiak. Boterea dute haien eskuetan, klase boterea. Lurralde baten gaineko kontrola ezartzea ahalbidetzen dien boterea. Prozesu sozialak haien interesen arabera antolatzeko gaitasuna ematen dien boterea.

Proletalgoak aldiz, ez du botererik. Ez dauka antolatutako, egituratutako, ahalmenik bizi den lurraldearen gainean erabakitzeke, proletalgoak ez du bere bizitzaren gaineko kontrolik, horiek kapitalaren balioaren sortze prozesu orokorraren menpeko baitira.

Bi klase sozialen artean salbagaitza den interesen arteko gatazka inherente bat existitzen da. Alde batetik, ahalik eta irabazi tasa handiena mantentzeko beharra. Bestetik, bizitzeko beharrezkoak diren bitarteko material eta sozialak bermatuta izateko beharra.

Logika berbera ageri zaigu espazioen gaineko gatazkan. Alde batetik, jabetza pribatua dugu, kapitalaren behar ekonomikoei funtzionala zaien jabetza forma, proletalgoak bereganatu dezakeena

baldin eta horretarako baldintza ekonomikoak biltzen baldin baditu, merkatuaren gaineko logikaren baitan egituratzen den jabetza forma da. Beste aldean, proletalgoak bere bizitzaren erreproduktzio-rako beharrezkoak dituen espazioetara sarbidea bermatuko dien eskubide unibertsala oinarri duen jabetza forma sortzearen beharra. Logika proletarioa litzateke hau, jabetza forma sozialistaren lehenengo oinarria.

Bizi dugun sistema ekonomiko sozialean, bi klaseetako adierazpen ezberdinak gatazkan sartzen dira espazioaren gaineko kontrolagatik. Gaztetxeak, etxebizitzak, fabrikak, etab. Okupatzen dira okupatzen duen norbanako edo kolektibo konketuaren gaineko bizi baldintzetan zuzenean interbenitzeko. Zentzu horretan, fenomeno isolatu modura ematen da hau. Esaten dugu, langile kontrolpeko espazioak «forma lokal fragmentatuan» ageri direla antolakuntza estadio baxuenean. Espazioaren gaineko langile kontrola ezartzen da, baina aldi berean, norbanako edo kolektibo okupatzaileak espazioa defendatzeko ahalmen urriak ditu. Antolakuntzarik eza edo eskala txikiko antolakuntza espontaneoak dira estadio hau definitzen duten aldagaiak.

Proletalgoa eta burgesiaren bitartekariak espazio baten gaineko kontrolarengatik gatazkan sartzen di-





Alain Arruti

Proletalgoak espazioaren gaineko gatazkan duen indar posizioa determinatzen duen aldagaia da antolakuntza. Esan bezala, langile kontrolpeko espazioak forma lokal eta fragmentatuan ageri zaizkigun honetan antolakuntzaren beharra berebizikoa da, eta horri erantzuteko interbenitzen du ERRAKI langile kontrolpeko espazioen babes sareak

renean borroka prozesu bat irekitzen da, bien arteko indar korrelazioaren bitartez borrokatzen dena. Indar korrelazio hau da, ezkutukoa edo agerikoa izan, espazioaren etorkizuna determinatzen duen elementua. Alde batetik botere burgesaren aplikazio konkretua dugu: Desalojo agindu bat eskuratu eta estatuaren indar armatuen bitartez gauzatzea, indar parapolizialak kontratatu eta espazioa modu zuzen batean utzaraztea, udaletxeen kasuan langile kontrolpeko espazioen gaineko gestioa itxuraz herri-tarrei zabaltzea prozesu partehartzaileen bitartez, kolektibo okupatzaileen legitiimitatea zikintzeko helburu bakarrarekin etab. Beste alde batetik langile indarra dugu. Proletalgoak espazioaren gaineko kontrola eskuratzeko duen ahalmen konkretua: Okupatzea, desalojo agindua desobeditzea, langile kontrolpeko espazioaren gaineko legitiimitatea irabazteko edo eta espazioaren jabe juridikoa despregiatzeko kanpaina komunikatiboak, etab.

Proletalgoak, nahiz eta baldintza okerragoetan aurkitu, espazioaren gaineko gatazka bere interese-kiko modu positibo batean ebazteko ahalmena duela erakutsi du. Zentro sozialak, auzo birjabetuak, etxe okupatuak eta denboran irauten duten antzeko esperientziak horren isla dira. Hala ere, gehienetan langile kontrolpeko espazioak espazio periferikoak dira, haien funtzio soziala agortuta duten espazioak, gehienetan zaharkituak, jabe juridikoarentzat balio gehiegirik ez dutenak eta merkatuan errentagarri izateko aukerarik ez dutenak.

Proletalgoak espazioaren gaineko gatazkan duen indar posizioa determinatzen duen aldagaia da antolakuntza. Esan bezala, langile kontrolpeko espazioak forma lokal eta fragmentatuan ageri zaizkigun honetan antolakuntzaren beharra berebizikoa da,

eta horri erantzuteko interbenitzen du ERRAKI langile kontrolpeko espazioen babes sareak.

Antolakuntzari dagokionez, baxuena den estadioan ERRAKI-k egin behar estrategiko fundamental batzuk ditu:

1. Jabetzaren eta espazioaren gaineko kontrolaren auzia optika iraultzaile batetik, hau da, langileriaren independentzia politikoaren ikuspuntutik ulertzea eta lantzea ahalbidetuko digun kontzeptu estrategikoak sortzea.

2. Eskala handiagoko antolakuntzaren efikazia erakustea, horrela, langile kontrolpeko espazioek denboran irauteko ahalmena irabaz dezaten.

3. Espazioen gaineko aferari dagozkion gatazkek ebazteko gaitasun tekniko eta politiko espezializatuak eskuratzeko. Koadro politikoen formakuntza.

4. Burgesiaren aurkako gatazkek irabaztea. Horien artean espazioen gaineko langile kontrola ezartzea zailtzen duten legeen modifikazioak eskuratzeko, adibidez.

Agerikoa da denbora eta inteligentzia politikoarekin garatu beharreko egin behar handiak direla hauek. Zaharra berriarekin debatitzen dabilen garai hauetan, zeinetan, geroz eta indar gehiagorekin, borroka forma berriak sortzen ari diren, ERRAKI errealitatea ulertu eta bertan ekiteko forma berriak esploratzen lagunduko digun erreminta organizatibo bat da. Jabetzaren auzia optika proletario batetik garatzera etorri dena. Ongi etorri, bada. /



ELKARRIZKETA

Moana War

“Ezin daiteke aukera askeez hitz egin botere testuinguru horretan”

Ez da inoiz erraza errealtate gordin, epaitu eta desiragaitz baten aurpegi izatea. Elkarrizketa honek prostituta batek bizi duen errealtate gogor, kondenatu eta ezkutuaren ahotsa izan nahi du. Eta anonimotasunetik egiten du. Hori, erabaki huts bat izatetik urrun, prostitutek bizi duten ikusgarritasun ezaren ondorio da. “Gerrako izenarekin” aurkezten dizuegu elkarrizketatua, Moana War, ezkutatuak diren milaka bizitzen ahotsa izateko, eta inoiz auzi partikularra izan ez den errealtateari izena emateko.

Emakume bat prostituitzera eramanez dezaketen arrazoiak eztabaidagai daude egun, erregulazionistak eta abolizionistak aurrez aurre jarri dituen auzi batean. Emakumearen sexualitatearen gaineko erabaki askea batetik, eta prostituzioan bizirauteko modu bakarra ikusten dutenen muturreko egoera bestetik, edota emakumeak zuzenean horretara behartzen dituen salerosketa edo hertsadura. Zein da zure esperientzia pertsonala?

Arrazoiak ez daude eztabaidagai, abolizionismoak arrazoi horiek erro

aztertzen ditu. Emakumearen sexualitateak ez du garrantzirik prostituzio-sistemarentzat, sistema horrek emakumearen desira eta sexualitatea baliogabetzen ditu eta, gainera, horretan oinarritzen da. Emakumeek desioa eta sexualitatea baliogabetuta ez badituzte, sistemak ezingo ditu erabili. Ni prostituzio-sistemara iritsi nintzen sexu-askatasunerako nire eskubidea eza gutu gabe. Eskubide horrek adostasuna eta elkarrekiko desioa dakartza berekin, eta zure askatasunak eta eskubideak zein diren ez badakizu, hark nahi bezala egiten zaitu sistemak.

Emakumeak prostituziora iristeko funtsezko arrazoiak da haiek prostitu-

itzeko prest dauden gizonak daudela, emakumeak erosteko eta saltzeko prest dauden gizonak. Gero eta handiagoa da prostituzio eskaria eta erantzun egin behar zaio, eta eskaera hori, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeekin baino ezin daiteke bete.

Gero eta gizon gehiago daude prest emakume baten baimena diruarekin erosteko, eta, beraz, baimen hori baliogabetuta dago; ezin daiteke aukera askeez hitz egin botere-testuinguru horretan. Gizon horiek gu erosteko eskubidean sinesten badute, nola nahi dugu gu, emakumeok, parekotzat ikustea? Merkantzia baino ez gara haien erostek, erosi, erabili eta baztertu beha-



“Emakumeak prostituziora iristeko funtsezko arrazoia da haiek prostituitzeko prest dauden gizonak daudela, emakumeak erosteko eta saltzeko prest dauden gizonak”

“Emakumeak puten eta santuen artean bereizten dituen banaketa historikoak funtzio soziala betetzen du patriarkatuaren barruan, gizonen nahietara azpiratzen baikaitu”



“Nire ustez, emakumeen esplotazioa eta lan-prekarietatea hainbeste ardura bazaigu, emakume guztien lan aukerak berdinak izan daitezen hasi beharko genuke lan egiten, prostituzioa lan aukeratzat hartu ez dadin; izan ere, emakumeon aurkako indarkeria eta esplotazio modu bat da”

rreko gorputzak.

“Nola eraikitzen den prostituta bat” landu duzue zuen hitzaldietan. Beraz, eraikuntza sozial bati buruz hitz egin dezakegula ulertzen dugu; formazio sozial baten barruan, puzzle baten parte den pieza bati buruz. Zein da prostituta baten funtzioa? Nola eraikitzen da prostituta bat eta zertarako?

Prostituzioa bizi garen gizarte patriarkalaren baitan ematen den sexualitate-ereduaren ondorio bat da, beraz, guztiz matxista eta misoginoa da, eta emakumeon gorputzarekin nahi dutena egin dezaketela uste duten gizonen nahiak baino ez ditu kontuan hartzen. Prostituitutako emakumearen eginkizuna da gizonaren nahiak betetzea; gizontasunaren ideia eta ikuspegi horretatik ezartzen diren botere-harremanak indartzea; eta, ondorioz, patriarkatua sendotzea.

Emakumeak puten eta santuen ar-

tean bereizten dituen banaketa historikoak funtzio soziala betetzen du patriarkatuaren barruan, gizonen nahiara azpiratzen baikaitu. Izan ere, gogorarazi nahi dut sexu-harremanak ez direla beharizan bat, desio bat baikizik; eta beraz, ez da emakumeok asebe-te behar dugun gizonezkoen eskubide bat.

Prostituzioa despenalizatzea eta lan harreman modura aitortzea politika eredugarritzat jotzen dute herrialde nordikoei begira daudenek. Haien burua ezkerrekotzat izendatzen duten sektoreetatik jaurtitzen den salbamendu-txalekoa da, zeintzuek prostitutek bizi duten lan egoera esklabista aitortu arren, gutxi sakontzen duten prostituzioaren legeztatzeak irekitzen duen eszenatokiarene auzian.

Suedia izan zen lege abolizionista onartu zuen lehen herrialde nordikoa,

1999an. Ondoren, beste herrialde batzuek jarraitu zioten: Islandiak, Kana-dak, Singapurrek, Hego Afrikak, Hego Koreak, Ipar Irlandak, Norvegiak eta Frantziak, hain zuzen. Gainera, Europako Parlamentuak 2014an eskatu zien estatu kideei antzeko arauak ezar zitzaten, eta gaur egun, abolizionismo berrian oinarritutako lege-proiektuen inguruan eztabaidatzen ari dira Irlanda eta Eskozia.

Metafora erabilia eta nire esperientzia pertsonaletik, nire ustez, zulatutako salbamendu-txalekoa da. Ni B planean nago orain, etxeko langile modura egiten dut lan, eta bizi ditugun bidegabekeriaren artean, ez dugu lan-gabeziarako eskubiderik. Nire ustez, emakumeen esplotazioa eta lan-prekarietatea hainbeste ardura bazaigu, emakume guztien lan aukerak berdinak izan daitezen hasi beharko genuke lan egiten, prostituzioa lan aukeratzat hartu ez dadin; izan ere, emakumeon aurkako indarkeria eta esplotazio modu bat da. Beraz, esaterako, etxeko lan-

***“Oso garrantzitsua da azpimarratzea
prostituzioa erregularizatu den herrialdeetan
hazi egin dela negozioa, bai legezkoa baita legez
kanpoko ere”***

***“Ni beti saiatu naiz nire inguruko emakumeen
zatirik politena bilatzen eta ateratzen, espazio
horren tristura gorabehera, emakume asko ia
egoera katatonikoan daudelako”***

gileen lan prekaritatea amaitu dadin borrokatzen ez bada, B plan hori behe-
ra erortzen da eta prostituziora itzuli
beharrean aurkitzen gara berriro.

Oso garrantzitsua da azpimarratzea
prostituzioa erregularizatu den herrial-
deetan hazi egin dela negozioa, bai le-
gezkoa baita legez kanpoko ere. Eta,
jakina, areagotu egin da emakumeen
salerosketa. Hori da legezkatzeak uzten
digun eszenatokia.

**Despertsonalizazioa,
instrumentalizazioa,
esplotazioa... Eragiten du
prostituzioak emakume baten
sexualitatean eta psikologia
afektiboan? Aldatzen ditu?**

Prostituzioak ez du nire sexualitatea
aldatu, ez naiz sekula nire sexualita-
tearen jabe izan. Prostituzioak bai egin
duena, baina, nire bizitza afektibo-se-
xualean trauma bat sortzea izan da. Ez
ditut trauma horren dimentsioak guz-
tiz ezagutzen, eta gaur egun, hilda nago
zentzu horretan... Prostituzioak osasu-

nean duen eraginaren inguruko hainbat
azterketaren arabera, trauma psikolo-
gikoak sor ditzake, gerra bat bizi izan
duten pertsonen jasaten duten trauma
osteko estresaren antzekoak. Nik uste
dut hori horrela dela, pertsonalki bizi
izan dudalako.

**Baliteke despertsonalizazio
horrek guztiak prostituzioan
diharduten emakumeen artean
eragina izatea, antolatzeke,
enpatia izateko eta konfiantza
izateko gaitasunean, edo baliteke
errealitate bat izatea egoera
horiek elkarrekin bizitzeak
biziraupen-sororitate bati ematen
diola bide, ezbeharren aurrean
batzeko. Zer harreman garatu
ditzue burdeletan kideekin?**

Prostituzio etxe batean sortzen di-
ren harremanak beste edozein espa-
ziotan sor daitezkeenak bezalakoak
dira: solidarioak, ez-solidarioak, eta
abar. Ni beti saiatu naiz nire inguruko
emakumeen zatirik politena bilatzen

eta ateratzen, espazio horren tristura
gorabehera, emakume asko ia egoera
katatonikoan daudelako.

Dena den, prostituzio-esparrutik
gure arteko lehia sustatzen da, ez bai-
tzaie interesatzen gu elkar lotzea.

**Errealitate horren aurpegi
gordinenetakoa da bortxaketa lan
baldintza bihurtzea; bortxaketa
egunerokotasunaren barruan.
Horrek amatasunari eta familia
bat izateko eskubideari buruz
pentsatzera garamatza. Nola bizi
duzue amatasunaren ausia?**

Bortxaketa ez da lan baldintza bat:
prostituzioa ordaindutako bortxaketak
dira, eta ez da gauza bera. Lan baldint-
zei buruz ari bagara, ziurtzat jotzen du-
gu prostituzioa lan bat dela eta, beraz,
laneko arriskuez hitz egin behar dela.
Laneko arriskua dei diezaiogeku egin
nahi ez dituzun praktika sexualak egi-
tera behartzeari? Umiliatzeari? Objektu
bat bezala tratatua izateari? Osasun fi-
sikoan zein psikologikoan dituen ondo-

“Ziurtatzen dizut egoera horretan egonda ezinezkoa dela familia bat sortzean pentsatzea”

rio izugarriei? Nire ustez, ez.

Amatasunari dagokionez, ziurtatzen dizut egoera horretan egonda ezinezkoa dela familia bat sortzean pentsatzea.

Euskal Herriko Mugimendu Abolizionista testuinguru konplexu batean sortu da mugimendu feministan, eta errezeloz begiratzen diote kolektiboari. Abolizioaren aldarriak ahots propioa du jada Euskal Herrian. Zer balorazio egiten duzu mugimendu abolizionistaz eta zein tresna eskaintzen dizue prostituzioa zuen haragitan jasan duzuen emakumeei?


Mugimendu abolizionista salbamendua izan da niretzat.

Abolizionismoak aspalditik izan du ahots propioa Euskal Herriko feminismoaren barruan. Ahots horiek batzeko eta antolatzeko beharretik sortu da Euskal Herriko Mugimendu Abolizionista. Prostituzioak dakarren sexu-indarkeriaren aurka borrokatze-ko denbora luzez espazio zehatz baten bila ari ginen emakumeok eta mugimendu feministako kolektiboek osatzen dute EHMA, baita gure gorputzak merkaturatzeko modu ororen aurka borrokatzeko espazio baten bila ari ginenok ere; hala nola, alokairu-sabelak

eta pornografia.

Biziraun dugunok, entzun gaitzaten eta babestuta sentitzeko espazio bat behar genuen, erakundeen utzi-keriak eragindako eskubide urraketak aldarrikatzeko, eta elkarrekin, ukon-
doz ukondo, borrokatu ahal izateko. Ez dago mekanismo publikorik bizirik atera garenok ditugun premia zehatzei estaldura emango dienik; horregatik da hain zaila prostituzio-sistematik irte-
tea. Lanik gabe, laguntza-sarerik gabe, psikologikoki eta fisikoki suntsituta, eta herritar gisara ditugun eskubideak zein diren ere jakin gabe.

Abolizionismoak horregatik guz-
tiarengatik borrokatzen du, emaku-
meen eskubideen alde, prostituzioan ari diren, prostituziotik irten diren eta prostituzioan erortzeko zorian dauden emakumeen eskubideen alde. Benetako lana izateko eskubidea, ikasteko aukerarik izan ez dutenen hezkuntzarako eskubidea, laguntza psikogikorako eskubidea, laguntza juridikorako eskubidea; finean, herritarren oinarritzko eskubideak. /





Martxoak 8
Emakume
langilearen
nazioarteko
eguna.



ANTOLAKUNTZAN DATZA
IRAUTZA ANTOLAKUNTZAN DATZA



M26ikasle greba
26Mhuelga estudiantil

**TASAK MERKETU,
BEKAK HOBETU!**

**¡ABARATAR LAS TASAS,
MEJORAR LAS BECAS!**

#M26greba
#26Mhuelga

UIB

HITZAK ETA ESANAHIAK

IKUSPUNTUA

Paul
Beitia



Zentzu komun dominantea ez da, beraz, inposatutako ulermen-marko bat baizik, burgesiaren erregimena bermatu dadin eta gauzek beren horretan jarrai dezaten

Argazki bat darabilt buruan azken egun haue-
tan. Igaro berri den urtarilaren 30eko gre-
ba orokorrak ubera luzea utziko du seguru:
balorazioak, kritikak eta autokritikak ez dira greba
biharamunekoekin amaitu eta ezta amaituko ere.
Klase ertaineko programa politikoari eta mobili-
zazio-ereduari buruzko hausnarketak ibiliko ditu
hainbatek buruan, errepresioaren ajeak beste zen-
baitek, proletalgoaren interesak testuinguru horre-
tan erdigunean nola jarri ere bai; baina nik, horiez
gain, argazki bat darabilt buruan, kazeta honek be-
rak lan nekagaitzez argitaratutako beste hainbat
irudi gogoangarriren artean, bat. Argazkiak badu
zerbait harrapatzen nauena, indar bat, aurkitu be-
har diodan esanahi ezkutu bat. Donostiako goize-
ko piketeetan aterea behar du izan: figura ilun bat
da bizkarrez tunel itzaltsu batean, txanoa jantzita
dauka eta beste figura lauso batzuen erdian dago,
besoa altxata heltzen dio eskularru urdinarekin
spray-poto bati. Hitz bat ari da horman idazten letra
okerrez, esku irmoz, eta errematatzeraz doa azken
lerro gorriarekin, hitz ezagun eta gogotik desitxu-
ratu hori, «iraultza».

Hitzak gauza ahulak dira. Ezin dugu mundua
ulertu hitzik gabe, baina era berean tresna ez fi-
dagarriak zaizkigu, aldakorrak. Ezaguna da Lewis
Carrollek, Aliziaren sortzaileak, *Ispiluan barrena*
eleberrian utzi zigun pasartea. Adreiluzko horman
eserita dagoen Humpty Dumpty pertsonaia gro-
teskoarekin egiten du topo Aliziak eta hitzei eta
esanahiei buruzko elkarrizketa abiatzen dute. Nes-
katoak honela diotso: «Kontua da zenbat esanahi
desberdin izan ote ditzaketen hitzek». «Kontua da»,
erantzuten dio Humptyk, «agintzen duena nor den,
besterik ez». Paradoxikoki, umeentzako kontakizun
bateko fikziozko pertsonaia batek esanahien uler-
kera politiko errearen berri ematen digu. Esana-
hien aldakortasunak politikarekin, boterearekin,
berezko erlazioa du; eta, guretzat, botereak kla-
se-boterea esan nahi du.

Kultura kontzeptuaren elementu fundamen-
tal bat nahi nuke mahaigaineratu: kultura uler-
men-marko konpartitu gisa. Kultura bat konpar-
titzen duten giza taldeek errealtatea ulertu eta

epaitzeko ikuskera bat ere konpartitzen dute. Marko
horren arabera egiten dute egiten dutena eta, hala-
ber, haren arabera ulertzen dute beraiek eta besteek
egiten dutena. Zentzu horretan litzateke kultura
ulermen-marko konpartitu bat: esanahi kolektiboen
multzo bat, mundu-ikuskera bat, errealtatea uler-
tzeko irizpideen kontzepzio konpartitu bat. *Zentzu
komun* bat, nahi bada. Eta gizarte kapitalistan, beste
edozein elementu bezala, ulermen-marko kulturala
ere norbere klase-posizioak determinatzen du, pro-
dukzioan hartzen duen lekuak.

Kultura dominanteaz ari garenean, beraz, kla-
se dominanteari bere boterea betikotzeko komeni
zaion kulturaren antolakuntzaz ari gara, botere
burgesen kultur makinariak, gizarte osoari inpo-
satzen zaizkion balore, praktika eta esanahiez, bes-
teak beste. Hitzen eta esanahien gaineko kontrolak
ere paper garrantzitsua jokatzeko du hor. Kapitala-
ren etengabeko metaketa bermatzeko, behar-beha-
rrezkoa da jendeak, esaterako, «lana», «bizitza»
edo «askatasuna» hitzen gaineko ulerkera jakin bat
konpartitzea: bizitzak lan egitea dakarrela berekin,
lanak soldatapeko lana esan nahi duela eta aska-
tasuna soldataz aparteko denbora mugatuan gerta-
tzen dena dela ulertzea, alegia. Zentzu komun domi-
nantea ez da, beraz, inposatutako ulermen-marko
bat baizik, burgesiaren erregimena bermatu dadin
eta gauzek beren horretan jarrai dezaten.

Langile-klasearen praktika kulturala, bestalde,
erlazio etengabe dago kultura dominantearekin,
eta harekiko onarpenek, tentsioek eta antagonis-
moek ezaugarritzen dute. Praktika alternatiboek eta
antagonistek —izan eraikin baten berjabetzea, izan
erdi kritikoa den diskurtso politiko jakin bat— eten-
gabeko jazarpena eta errepresioa jasango dute, neu-
tralizatuak edo otzanki integratuak izan daitezten.
Horra, berriz ere, kulturaren eta politikaren arteko
lotura: politika jakin batek oinarri kultural bat be-
har duen bezala —ulermen-marko konpartitu bat,
esaterako— behar du kultura batek bere existentzia
bermatuko duen politika bat. Sozialismoaren erai-
kuntzak kultura dominantearekiko antagonikoa
den ulermen-marko bat du beharrezko, baina uler-
men-marko hori instituzio eta politika proletarioen

Sozialismoaren eraikuntzak kultura dominantearekiko antagonikoa den ulermen-marko bat du beharrezko, baina ulermen-marko hori instituzio eta politika proletarioen bidez baino ezin da bermatu. Hori ere bada kulturaren antolakuntza antagonikoa

bidez baino ezin da bermatu. Hori ere bada kulturaren antolakuntza antagonikoa.

Bi aukera baino ez daude, beraz: zentzu komun burges dominantea onartzea ala harekiko antagonikoa den ulermen-markoaren arabera jokatzeta. Klase ertaineko alderdiak, beren praktika politikoa une oro marko burgesaren mugetan ulertzen duten heinean, hark inposatzen dituen esanahiak eta ulerkerak onartzera eta haien arabera jokatzera behartuta daude. Beraz, esanahi eta ulerkerak guztiz aurkakoak darabiltzagu beraiek eta guk. Bernie Sandersek «iraultza» badatorrela dio bere azken kanpainen, baina guk badakigu hitz hori ez duela gure esanahi berarekin erabiltzen, ez duelako inola ere klase-gizartearen gaindipena gordetzen bere baitan. «Lan duina» deitzen zitzaion azken greba orokorrean lan-baldintzen hobekuntzari; guk, aldiz, ulertzen dugu ez dagoela lan «duinik» soldatapeko esklabotzan. «Sozialismoa» hitza ere, proletariaren autonomia eta autodeterminazioaren esanahiarekin erabiltzen ez denean, elementu folkloriko identitario hutsa baino ez da.

Sozialistok, beraz, ulermen-marko antagoniko baten arabera jokatu behar dugu, eta hala gabiltza, klase-independentsia oinarri hartuta, pixkanaka, gure praktika politikoa kultura dominantearen mugetatik kanpo garatzen. Nire iritziz, horregatik dira askotan eztabaidetan izandako talkak, finean, «ulermen» arazoak. Askotan gertatu izan zaigu gurasoekin, ingurukoekin hitz egitean, haiek «ez ulertzea» guk esaten duguna. Klase ertainaren alderdietako komisario politikoek, esaterako, «haustura politikoa» edo «iraultza» ulertzen ez dutela diotenean, ez da hitzak berak ulertzen ez dituztela, haien benetako esanahia, praktikara eramana,

ulertzen eta asumitzen ez dutela baizik. Hortik datoz gero «infantilismoa» edo «idealismoa» egozten dizkiguten errazkeriazko kritikak. Gure proiektu politikoa ez da zentzu komun burgesean kabitzen, harekiko antagonikoki ekiten duelako, hain zuzen. Kolitzak kazeta honetan kurtso berriari buruz idatzi zuenean zioen bezala, horren ondorioak izango dira etengabeko talkak eta mespretxua, «antolakunde komunistek proletariari eta iraultza sozialistari onuragarria izango zaion zentzu komun politikoa berri bat fundatzen duten arte».

Zentzu komun berri bat, ulermen-marko berri bat, oro har kultura berri bat gure ekinbide politiko propioaren bidez baino ez dugu sortuko eta bertutuko. Gure ekinbidez baino ez, pentsatzen dut, eta berriz etortzen zait burura iragan greba orokorreko argazkia: figura ilun hori, eskua altxata idatzi duen hitza errematatzen doalarik. Otutzen zait, batzuek etengabe infantilismoa eta idealismoa egozten dizkiguten bitartean, «iraultza» hitzak bere benetako esanahia berreskuratzen duela determinazioz betetako gaztearen oihuan edo horma batean idatzita, esku irmoz, letra okerrean eta gorritz. /

Biaggio De Giovanni eta asetu ez gintuen marxismoa

Ezin diogu gure buruari edozein akademiko, alderdiko kuadro zein sindikalistak ildo sozialista kritikatu edota erasotzen duenean moralismo eta biktimismoz jositako estalki baten pean ezkutatzeke luxua onartu. Ezin dugu, ideologiaren kritika termino moralistetan ematerik onartu bere jitea edozein delarik ere (errebi-sionista, ortodoxoa,...) horrek ez baitu langile klasearen sektore ezberdinetan (soilik) kontzientzia faltsua ordezkatzeko, errealitatearen *izatezko modu partikularra* baizik. Hau da, bere posizio sozial errearenena. Termino politiko eta ideologikoetan horixe da langile aristokraziak duen existitzeko modua, baita orokorrean, klase ertainak duena ere.

Hain zuzen ere horregatik, ideologiaren kritikak, nire iritziz, teoria komunistaren lehentasunezko jo-puntua izan behar luke. Baina ez bakarrik pentsamenduaren dimentsioetan ulerturiko kritika bezala, baizik eta, bereziki, adimenaren antolaketa modu kapita-

lista honen atzean aurkitzen den antolaketa sozial orokorraren gaineko kritika materialista bezala.

Ideologiak, dominaziorako mekanismo bezala edo formaren dominazio bezala ulertuta, den bezalakoa izateagatik izan behar du kritikatu; bada, produkzio esferarekin duen harremanagatik eta beronekiko funtzionala izateagatik. Hori horrela, produkzioaren eta zirkulazioaren arteko bereizketak hartzen duen formari dagokionean, kapital harremanaren erreprodukzio momentu eta era berean politika burgesaren momentu eratzaile bezala ulertu beharko genuke: honen ezker muturretik eskuin muturreraino. Ideologia, beraz, *efektu* izateaz gain, kapitalaren erreprodukzioarako *baldintza* ere bada. Susmoa daukat, eta De Giovannirengan oinarritzen naiz susmatzeko, norabide horretan kritikatzeko duela Marxek ekonomia politikoa azken milimetroraino, erreminta ideologiko eta klase kontzientziaren mistifikatzaile modura, baita kapitala-lana kontraesanaren

justifikatzaile modura ere.

Kritika hori, abstraktuaren dominazioaren krisiaren sintoma nabaria da. Hau da, kontzientziaren (eta bere funtzio dominantearen) forma fetixizatuek topatzen dituzten mugena. Kapitalaren krisi eta horren ondorio den langile klasearen estratu ezberdinen proletarizazioak eskaintzen diguten testuinguruan ulertu behar dugu hori. Gure inguru partikularrean, Euskal Herrian, Ezker abertzaleak “errealitatea ulertzeko erraminta bat” bezala saldu nahi izan digun “marxismo” horrek ez ditu gure belaunaldiko gazteen beharrak asetu, nahiz eta oraindik, beste zenbait fakzioek hartu dituzten forma erradikalekin bateragarria izan daitekeen. Marxismoa objektua ezagutzeko zientzia huts bezala erabiltzea klase sozial ezberdinen interesak elkartzeko baliagarria izan da, baita, horiekin koherentzian joan diren proposamen politikoak sortzeko ere, baina ez gu politikoki asebetetzeko¹. Botere burgesaren fundamentuen inguruko kritika politi-

Iruditzen zait, orokorrean Euskal Herrian, XX. mendean bezala II. Internazionalaz geroztik, analisi marxianoak ez duela Kapitalaren I. liburuaren ulermen-markoa gainditu eta II eta III. liburuengandik bereizia izan dela

koa, beraz, esfera “ekonomiko-produktiboaren” gaineko jakintzarako instrumentu izan da, kapitalaren erreproduktzio momentuarekin eta zirkulazioarekin duen lotura atzean utziz, eta ondorioz, oinarritzko kontraesanak (kapitala-lana) hartzen d(it)uen morfologiari/ei zein horien funtzio erreproduktibo/dominantei itzal eginez. Horregatik, “marxismo” horrek kapital harremana errealizatzeko *baldintza* bezala ezaugarritu izanak ekarpena egin dio merkantziaren fetitxismoari eta bere izate politikoaren inguruko frogak eskaintzen dizkigu, proletalgoa menderatzeko mesedetan eginak.

Iruditzen zait, Euskal Herrian, XX. mendean bezala II. Internazionalaz geroztik, analisi marxianoak ez duela Kapitalaren I. liburuaren ulermen-markoa gainditu eta II eta III. liburuengandik bereizia izan dela. Lotura hauxe da, De Giovanni klase borrokaren eremu politikoko fundamentu zientifiko bezala aurkeztuko diguna.

Autore italiarrak, errealtate kapitalistak produkzioa eta zirkulazioa bereizten dituela ohartaraziko digu baina era berean, honen ukazioa bere *erreproduktziorako baldintza* dela esango digu. Beste hitz batzuekin, banaketa horrek produkzioan eta merkatuan kontraesan handiak existitzen direnaren ideia sortzen du: orekarik eza, gainproduktzioa, subkontsumoa... Horrela, politikaren

dimentsioa Estatuak merkatuan garatu beharreko interbentzioaren borondatera mugatzen da. Hain justu, ekuazio politiko hori denean kapitalaren erreproduktzioa eskala handiagoan errealizatzea ahalbidetzen duen “ukazio organikoa” (eta batasuna) burutzen duena. Hasierako eszisia, kapitalaren batasun eta sintesiak eskala altuan hartzen duen formari dagokiona da (abstrakzio erreala), eta ondorioz, klase sozialak existitzen diren bezala erreproduzitzeko baldintzak sortzen ditu. Azken finean, ekonomia eta politikaren interpretazio lineala gainditzen saiatzen da De Giovanni berau konplexutasun gradu handiagoan aboradaturaz.

Hori horrela izan bada, zilegi iruditzen zait Ezker abertzaleak historikoki erabili izan duen “marxismoa” banaketa horren adierazle dela esatea, bai eta bere mugak geroz eta agerikoagoak direla aitortzea. Iraultza sozialistarako edo produkzio soziala antolatzeke beste modu bat teorikoki sostengatu nahi izatetik haratago, aipaturiko banaketa elikatzen jarraitzen baitu. Horren isla esanguratsua da politika egiteko darabilten modua: antolakunde politiko (alderdia) eta antolakunde ekonomikoen (sindikatuak) arteko banaketa, taktika (euskal estatua) eta estrategiaren (estatua sozialista) arteko banaketa, botearearen bereizketa berehalako erlazio sozialetatik, ehun produktiboa eralda-

tzeko trantsizio programa baten ausentzia... eta finean, eszisiaoren printzipioaren erreproduktzioa.

Kapitalaren I eta II – III liburuen arteko lortura faltak, politika sozialdemokrataren oinarri teorikoa ezaugarritu duten *egia-erdiak* dakartza berarekin, hala nola: irabazi tasaren joera beherakorren legeari zentralitate estrategikoa kentzea, krisiaren momentua alderdi komunistaren teoriatik bai eta proletalgoaren diktaduraren teoriatik bereiziz.

Euskal Herrian *analisirako* metodo bezala saldu zaigun marxismo honek forma ezberdinak hartu ditu garai eta leku ezberdinetan. Bersteinengandik hasi eta Kautskyganaino horien oinordeko ideologiko guztietatik igaroz, ideologia “marxista” ideologia burges guztietarik garbiena edo depuratuen izan da eta horrek zerikusi zuzena edukitu du, nire aburuz, langile aristokraziaren kategoria ekonomikoarekin. Hots, klase ertainekin. Bestela, ezin uler daitezke II. Internazionalak Marxen marko teorikoarekin gauzaturiko haustura edota errebisionismoaren hegemonia marxismoaren baitan horien atzean aurkitzen zen egitura materialean ikusmira jarri gabe.

Ondorioz, eta testuan azaldutakoari dagokionez:

Ideologia “marxista” ideologia burges guztietarik depuratuena izan da eta horrek zerikusi zuzena eduki du, nire aburuz, langile aristokraziaren kategoria ekonomikoarekin

Ezinbestekoa iruditzen zait ildo sozialistaren blindatze politikoaz hausnartzea ideologiaren interbentzioarekin loturan, berau edonolakoa izanda ere: errebisionista, ortodoxoa, etab. Ildo iraultzailearen erreformaren gainetiko nagusitzea ekarriko duten mekanismoak sortzea premiazkoa dela iruditzen zait, eta hori ez dabil oso urrun borroka komunitateak duen kualifikazio politiko esponentzial eta bere superbisiorako dituen gaitasun progresiboetatik, nahiz eta paraleloan, aurreko klase borroka zikloetako esperimentziek balantze zehatz bat behar duten proletargoaren porrotaren arrazoiak argitzeko.

Beste alde batetik garrantzizkoa deritzot Alderdi Komunistaren eraikuntzan langile aristokraziak (akademikoe, profesional teknikoek, funtzionarioek...) izango duen parte hartzea ikertzea. Kontuan izanik zentroko baldintza inperialistak direla sozialdemokraziaren bideak argitzen duen matrize ekonomikoa.

Gainera, ezinbestekoa da errebisionismoa eta marxismoa bereizten dituen marra gorria ongi mugatu eta horren ezaugarritzea burutzea, bai eta komunitate politikoan berau sozializatzen behar adina denbora igarotzea. Hori ondo ez egiteak epe ertain luzera begira ondorio katastrofikoak ekar ditzake.

Azkenik, esan landu dadan hipotesia Biaggio de Giovanniren “*Teoría política de la clase en El Capital*” obratik elikatu dudala, baita Marramaok testuari eginko ekarpenetatik ere, non nire ustetan, bertan teoriaren alorrean ematen den klase borrokaren auziaren zehaztapenak proiektatzen diren, errebisionismoaren eragin-esparrutik kanpoko marxismoaren ezaugarritze-ari garrantzia emanaz. /

¹ Argitu nahi dut, ezker abertzalean marxismoari buruzko kontzepzio ezberdinak egon diren arren, artikulua honetan kritika-gai dudan kategoria ezker abertzaleko ehun militantean zein oinarri sozialean hegemonikoa izan dena dela.

MILLENNIALETATIK ZBELAUNALDIRA

IKUSPUNTUA

Ane
Ibarzabal



1990ean, makinak bigarren aroa hasi zenean, potentzia informatikoaren hazkunde esponenzialak, Internetak eta teknologia digitalaren botere zein bizkortasunak ezaugarritu zuten. Ikusi ahal izan dugu hamarkada horrek zabaldu zuen aro digitalean produkzio ereduak nola fagotizatu duen informatika, eta nola pairatu duen lanerako errazminten informatizazioaren eragin kulturala. XIX.

mendean, lurren-makinak eskulanaren ezaugarritzearen logika beretik (eskulan kualifikatuaren behararen agerpena, adibidez), teknologia informatikoaren garapena jakintza- eta produkzio-egitura guztien transformazioan ezinbesteko engranajea izan da. Giza logikaren parametro berriak ezarri ditu. Baina 90eko hamarkadan hasitako makinaren aro oparoa 2007. urtean hasi zen krisiak determinatuko zuen. Izan ere, krisi garaian akumulazioa bermatu dadin, merkantzien zirkulazioa eta produkzioa eraberritu behar izaten dira, eta baldintza berrietara moldatu; zuzenbide-egiturari dagozkion jabetza pribatua moldatuz zein aldaketa tekniko-produktiboak emanez, besteak beste. Horrek guztiak aldaketa kultural handiak eragiten ditu: bizi eredu errotik aldatzen du, elementu berriak txertatuz eta emankorrak ez direnak ezabatuz. Krisian, gainba-



lio metatzeko ezintasunak eta ongizate estatuaren gainbeherak eragindako aldaketa kulturek langileria proletarizazioa izan dute ondorioztat; lan-baldintzen zein bizi-baldintzen okertzea, alegia.

Elementu berriak gizartearen baitan txertatzeko, lan-indarraren izaera berritzeko, langilerian esku hartu behar izatea dakar. Interbentzioa modurik homogeneousan egiteko ezaugarriak gazte-riak betetzen ditu, batez ere, bi faktoreren ondorioz: batetik, etorkizun berehalakoenean lan-merkatu txertatuko den lan-indarra delako eta, bestetik, gaztaroa deritzon fasea izaera eta identitatea garatzeko aroa delako, erro sendorik gabekoa, baldintza horien baitan aldaketetarako erraztasun gehiagorekin.

Millennial deritzon gazte langile belaunaldiaren nolaketasuna lan-merkatu inkorporatzeko ezintasunak ezaugarritu zuen, 1980. urtetik aurrera jaio-

tako gazteok 2007. urtean hasi zen krisiak bete-betean harrapatu gintuen, hain zuzen, lan-merkatu inkorporatzeko garaian, eta Europar *millennial* ize-
nez bataiatu zen belaunaldi honek Espainiar Estatu-
an «nini» izena hartu zuen. Gazte Behatokiaren arabera, EAEn 2013an, «nini»-en langabezia-tasa %42an zegoen (Europar Batasuneko bataz-beste-
koa %19an), epe luzeko (12 hilabetetik gora) langa-
bezia-tasak 2003koa bikoiztu zuen, eta aldi bateko
lanaldiak EAEko gaztearen kontratuen %70a zi-
ren. Argi dago ekoiztako eskulana lan-merkatu
inkorporatzeko ezintasuna zuela burgesiak. Gazte-
ria langilearen ezaugarriek ez zuten bat egiten mer-
katuaren beharrian inmediatekin, hau da, garaiko
lan-merkatuaren baldintzak ez zetozen bat ongizate
estatuak eskaintzen zituen baldintzekin eta baldin-
tza berrietara moldatu beharra zegoen..



Ziklo ekonomiko berdinen seme-alabak izan diren *millennial* eta Z belaunaldien arteko desberdintasuna da, bigarren hori krisiak irekitako lan-merkatura moldatzeko interbentzio ideologikoaren ondorio izan dela

Aldaketa kulturalak bultzatzeko beharrianen nondik norakoak akumulazio ziklo berriaren ezaugarriek nolakatu zuten. Aldaketa horien emaitza izan da Z belaunaldi edo *Postmillennial* izenaz ezagutzen den gazte espektroa; 1995. urtetik aurrera jaiotakoena bezela ezagutzen dena. Esaterako, Europar Batasuna bloke ekonomiko moduan indartzeko nahiak, edo behar baino gehiago ez ahultzekoak, lan-indarra ekoitzi behar zen Europan barna mugituko zena, oro har, bidaiatzeko prestutasuna eta gaitasuna izango zuena. Hori, *millennialek* «migratzea behar izan» (hala deskribatzen du Gazte Behatokiak) gisara pertzibitzen zuten, Z belaunaldiak, aldiz, «atzerrian lan egiteko aukera»-tzat jotzen du. Horretarako, gaitasun akademiko batzuen hauspotzea bermatu zen, esaterako, internazionalizazioa ahalbidetzeko gazteria hirueleduna hezteak; edo kulturen, harreman eredu kolektiboak eraiki ordez, norbanako atomizatuak ekoiztearenak, lehiakorrak eta erro sendorik gabekoak, inguru hurbiletik alde egin eta migratzeko arazorik izan ez zezaten. Horren adibide garbia da ere teknologia informatikoei dagokien ditugun loturak, mundua eta lan-merkatura logika informatikoen baitan interpretatzea ahalbidetu duena, eta burgesiarri edo lan-eredu berriei merkatu berri bat zabaltzea ahalbidetu die, hala nola, te-

lefonoen bidez aldi baterako eta berehalako lanei erantzuteko auziari irtenbidea aurkituz. Esku-hartze mediatikoa ere nabarmena izan da ideologiaren eraldaketan, batetik *Hermano Mayor* moduko programekin «nini» gazteriaren kriminalizazioan izandako eskuhartzeagatik disziplinamendu bat posibilitatuz eta bestetik, *Gandia Shore* bezalako programekin hauspotutako aisialdi eredu eta gazte izaerekin, besteak beste.

Askok dira ziklo berrira egokitzeko exekututako interbentzioak, horregatik diot ziklo ekonomiko berdinen seme-alabak izan diren *millennial* (1980-1994) eta Z (1995-2005) belaunaldien arteko desberdintasuna dela, bigarren hori krisiak irekitako lan-merkatura moldatzeko interbentzio ideologikoaren ondorio izan dela. Biak ala biak ezaugarri ekonomiko antzekoetan hezitakoak dira: langabezia-tasa handiak, mugikortasuna, aldi baterako kontratuak, ikasketa kualifikatuak eta jakintza zein kontrol teknologiko handia, halere, horiek ulertzeko moduan desberdintasun handiak dituzte. JobToday-ren arabera, Z belaunaldiaren lan-munduari pertzepzioa orain artekoarekin alderatuz oso bestelakoa da, esaterako, %66ak enpresa batek honako ezaugarri hauek izatea lehenesten du: enpresak eskaintzen dituen ikasteko aukerak, ordutegi malguak



Botere burgesa ahuldu eta indar-korrelazioan aurrerapausoak emateko, gazte esparruan egiten den interbentzio ideologikoa neutralizatzeak, hortaz, botere burgesaren ahultzea ekar dezake

eta «balore etikodun» lanak, ingurumenarekin en-gaiatuak, kasu. Ezaugarri horien gailentzeak badu zer ikusirik interbentzio ideologikoarekin, izan ere proletarizaziora moldatzeko eraldaketa ideologi-koaren emaitza dira.

Beharrezkoa da gazte problematikaren nolako-tasuna eta horrek botere burgesarekin duen harre-mana aztertzen dugunean, plano ideologikoaren, gizartean ematen diren aldaketen eta ofentsiba kapitalistaren arteko loturak zehaztea. Plano ideo-logikoan, gizartearen antolakuntzan ematen diren berrikuntzek eta nolakotasunean eragiten dituen al-daketek ofentsiba kapitalistaren baitan zer helburu edo zer funtzio betetzen dituen determinatzeak borroka-lerroen nondik norakoak zehaztu ditzake. Botere burgesa ahuldu eta indar-korrelazioan au-rrerapausoak emateko, gazte esparruan egiten den interbentzio ideologikoa neutralizatzeak, hortaz, botere burgesaren ahultzea ekar dezake. Bi arrazoi nagusirengatik borrokatu behar dugu gazterian es-ku-hartzearen auzia: batetik, eta aurreko testuan aipatzen nuenari tiraka, gaur egun gazteriar egi-ten zaizkion interbentzio ideologikoez suposatzen duten gizarte-antolakuntza moldaerak eta pro-dukzio-baldintza aldaketak etorkizuneko proiekti-oz egikaritzen dira; proletarizaziorako ezaugarriak

orainean txertatzen dira, eta etorkizuneko langi-le-klase osoa baldintzatu dezake horrek. Bestetik, ezaugarri horiek gainbalioaren metaketaren baitan ematen direnez eta hor dagoenez botere burgesaren koxka, metaketa hori ahalbidetzen duten dinamika eta interbentzioak neutralizatzeak indar-korrela-zioan aurrerapausoak ematea ahalbidetuko digu. /



ERREPORTAJEA

M8: historiaren irakaspenak gaurkotuz



ITAIA Emakume Sozialisten Sarearen hitzaurrea

Aspalditik interesa sortzen duen gaia da gizartearen forma ekonomikoaren eraldaketa prozesuarena. Horrek erreferentzia egiten die krisi testuinguruan lanaren mundua jasaten ari den aldaketek: sistemaren muga objektiboak nabaritzen ari gara. Horren adibide da azken urte edo hamarkadetan sistemaren oinarri den esplotazioan ematen ari den aldaketa kualitatiboa, batez ere, gero eta langile gutxiagok gero eta gainbalio handiagoa ekoitzi behar dutelako. Etekinak mantentzeko beharrek, beraz, eskutik dakarte langileriaren pobretze gero eta nabariago bat: esplotazio mailaren gorakada, soldataren devaluazioa... Egoera zehatz horren analisia beharrezkoa da klase konposizioa jasaten ari den transformazioa ulertzeko, eta era berean, klase dominazioaren adierazpen zehatzek hartzen duten forma ulertzeko.

Horren jakitun eta dagokigun gaiari helduz, esan genezake, emakume langileon egoerak forma anitz hartu izan dituela historian zehar. Momentu historiko bakoitzak, noski, bere azterketa zehatza eskatzen du, eta egungoak ere bere bereizgarri propioak dituela esan genezake: 1970eko hamarkadatik aurrera, lan merkatuan sartu diren emakumeen kopurua gizonena baino altuagoa izan da. Emakume horietako gehienek eskulan zerbitzuetan, osasun jardueretan eta pertsonen zaintzari lotutako sektoreetan lan egiten dute. Era berean, lanaldi partzialeko lanen %73 emakumeek egiten dituztela esan beharra dago, kualifikazio ezak eta familia betebeharrak direla medio. Jakina, lanaldi partzialeko enpleguen orduko irabazia lanaldi osokoena baino %30 txikiagoa da. Beraz, eta sektore horien feminizazioa dela eta, batez besteko irabaziak desberdinak izan ohi dira emakumeen eta gizonen artean. Horri, nola ez, eskutik dakarren ofentsiba kulturala ere gehitu behar diogu, emakume langileon kasuan biolentzia matxistaren forma hartzen duena, bere adierazpen guztietan.

Gaia optika proletario batetik lantzeko ahalegin teorikoak azken urtean nabariak diren arren, beharrezkotzat jotzen dugu, praktika politikorako urratsa prestatzen hastea

Egoera horrek aspaldi mahaigaineratu zuen auzia lantzearen premia. Horren aurrean, aipatzekoa da feminismoak mundu mailan izan duen gorakada eta emakume sektore zabalak mobilizatzeko izan duen gaitasuna. Aitzitik, egiaztatzen ari da egoerari buelta emateko ezintasun nabaria; salaketa andana azaleratu badu ere, horiek lortzeko beharrezko gaitasunen antolaketa lortu ez duenaren seinale.

Horrek guztiak, estrategia sozialistaren lehen lerroan kokatu du Euskal Herrian ere emakume langileon zapalkuntzaren auzia. Hori horrela, gaia optika proletario batetik lantzeko ahalegin teorikoak azken urtean nabariak diren arren, beharrezkotzat jotzen dugu, praktika politikorako urratsa prestatzen hastea. Badakigu emakumeen egoera lazgarriak ez duela paraleloki haien kontzientziaren garapena ekarriko, eta beraz, subjektu horren potentzia askatzeko, beharrezko premisa dugu antolakuntza tresnetan asmatzea. Hots, emakume langileen heziketa politikoa helburu izango duten masa espazioak sortzen hastea dagokigu. Bizi baldintzen eraldaketa bat borrokatzeko gaitasuna izango duten erremintak izan behar dute, langileria antolatuen indarren araberako esperientzia praktikoaren prozesua baita euren kontzientzia garatzeko forma bakarra.

Antolakuntza garapen horretan beharrezkoa izango dugu historiaren ikerketa sakona egitea. Alegia, azken mendeetan garatu den langile mugimenduaren analisi kritikoa berebiziko jarduna dugu, erreferentzia historikoetatik beharrezkoak diren irakaspen politikoak atera asmoz. Kasu zehatzean, langile mugimenduek emakumearen auziaren aurrean hartutako erabaki politiko eta organizatiboek asko dute esateko. Horri erantzutera dator hurrengo erreportajea: komunismoa helburu izan zuten antolakundeek emakumearen auziaren gainean harturiko ebazpenei hautsa kentzera eta horien gaurkotasuna mahaigaineratzera. /

M8 EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ANTOLAKUNTZAN DATZA IRAILTZA



Martxoaren 8az hitz egiten has-teko interesgarria da mende batzuk atzera egin eta egun horren sorreraren testuinguru ekonomikoa, soziala eta politikoa ulertzeara. Izan ere, XVIII-XIX. mendeetan izan zen industrializazio prozesuak emakumeak ekoizpen prozesuan betetzen zuen posizio sozialaren aldaketa eragin zuen.

Garai haietako aurrerapen teknikoei eta makinaria berriei esker, merkantzia gehiago ekoitz zitekeen denbora gutxiagoan, eta ondorioz, merkantzien ekoizpen kostuak merkatu ziren, kapitalisten etekinak handituz. Makinak gizon helduaren jarduera batzuk ordezkatzeko hasi ziren, aurrerapen teknikoak tarteko, ez baitziren horren beharrezkoak gizonaren fisiologiari erantzuten zieten hainbat ezaugarri. Era berean, burgesiari baliagarriagoa egin zitzaion emakumeen eta haurren eskulana, merkeagoa baitzen haien lan indarra. Esaterako, irundegiak emakume beharginez beteta zeuden. Sozialki onartuta zegoen emakumeei gutxiago ordaintzea, eta, beraz, bertatik ateratako etekina handiagoa zen burgesentzat.

Industria iraultzaren eraginez, emakume langilea masiboki txertatu zen ekoizpen prozesura, eta hortaz, fabriketara. Horrek hainbat ondorio izan zituen antolatzen hasia zen proletargoaren eraketa politikoa. Batetik, emakumea ekoizpenean murgiltzeak gizarte kapitalistaren bidegabekeriak are gehiago bistaratu zituen. Emakume langileak jabetu ziren bizitza politikoa parte hartzeko aukera ukatzen zitzairela, eta ukatutako subjektua zirela. Hala, gizon langilearen eskubide berdina izateko beharra eta grina azaleratu zituzten. Bestetik, emakume langilearen parte hartze politikoa ukazioak proletargo osoaren gaitasun politikoa murrizten zituen, lantokietan hain altua baitzen emakume langileen presentzia, ezen fabrika askotan ez zela posible aldarrikapenak aurrera eramatea emakume proletarioen babes politikorik gabe. Langile mugimenduan parte hartzeko

**Sozialki onartuta
zegoen emakumeei
gutxiago
ordaintzea, eta,
beraz, bertatik
ateratako etekina
handiagoa zen
burgesenentzat**

**Bi joera horien
artean erabaki
behar zuten
emakume
proletarioek:
emakume guztien
artean eskubide
politikoen eta
sozialen aldeko
borrokan
inplikatu ala
langileriaren auto-
antolakuntzaren
baitan emakume
langileen beharrak
borrokatzeko
tresnak sortu**

beharra agerikoa izan arren, emakume beharginek kasu askotan ez zeukaten langile alderdian parte hartze aktiboa izateko antolakuntzarako tresna garranturik; ez taktika definiturik, ez antolakuntza markorik...

Alexandra Kollontaik esan zuen bezala, une hartan “generorik gabeko boto eskubidea” ez zen langileen borrokan zati integrala; izan ere, alde batetik, ordura arte emakume langileak etxean giltzapetuta zeuden nagusiki, eta bestetik, langile alderdian ideologia burgesaren eragina nabaria zen oraindik.

JOERA ANTAGONIKOAK


Kapitalismoak emakumearen egoera objektiboan eragindako aldaketek emakumearen auzi modernoaren sorrera eragin zuten, emakumeen artean antagonikoak ziren posizioak azaleratuz. Boto eskubideari dagokionean, emakume burgesen joera zen boz eskubidearen bitartez haien senarren parrerarekin heldu eta ondasunez modu askean gozatu nahi izatea; emakume langileek, aldiz, errealitate soziala bere osotasunean iraultzeko gaitasun politikoa eskuratu nahi zuten.

Emakume guztien arteko batasun politikoa aldarrikatzen zuten talde edo espazio politikoetan ez zituzten inolaz jorratzen emakume proletarioen beharrak nahiz interesak, eta horrek, emakume langilearen zapaldu izaera eta egoera betikotzea zekarren.

Bi joera horien artean erabaki behar zuten emakume proletarioek: emakume guztien artean eskubide politikoen eta sozialen aldeko borrokan inplikatu ala langileriaren auto-antolakuntzaren baitan emakume langileen beharrak borrokatzeko tresnak sortu. Auto-antolakuntzaren bidegurutzea hartu zuten emakume langileek, eta elkarrekin lan egiteari ekin zioten.

URRATSAK ETA LORPENAK

Urtetik urtera, gora egin zuen langile mugimenduan emakume desjabetuen parte hartzeak. Ingalaterran, 1888-1889 urte artean, mugimendu sindikala erradikalizatuz joan zen, gizon zein emaku-







Alemaniano Alderdi Sozialdemokrata izan zen bere programa politikoa emakumeen boto eskubidea txertatu eta horren aldeko kanpainiak antolatu zituen bakarria Europan. Horrek ahalbidetu zuen alderdiaren barruan emakumeek haien espazio eta behar materialak borrokatzeko tresna organizatiboak eskuratzea

me proletarioz osatuta egotera igaroz. Hogei urtean nabarmen igo zen sindikatuetan emakumeen kopurua: 37.000 emakume egotetik, 167.000 emakume izatera pasatu ziren. Gainera, emakumearen sindikalizazioa ukatzen zuten sektoreetan, emakume langileen egitura propioak sortu zituzten. 1906. urtean, Emakume Langileen Federazio Nazionalaren sorrera bultzatu zuen Mary Macarthurrek, eta 2.000 kide izatetik 20.000 izatera igaro ziren urte gutxian.

Alemanian, 1892. urtetik aurrera, Klara Zetkinnek zuzendutako *Berdintasuna* izeneko aldizkaria argitaratzen hasi ziren. Boto eskubide unibertsalaren aldeko defentsa politikoa egiteaz gain, lege baztertzailen abolizioa galdegiten zuen *Berdintasunak*. Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata izan zen bere programa politikoa emakumeen boto eskubidea txertatu eta horren aldeko kanpainiak antolatu zituen bakarria Europan. Horrek ahalbidetu zuen alderdiaren barruan emakumeek haien espazio eta behar materialak borrokatzeko tresna organizatiboak eskuratzea. Urteek aurrera egin ahala, ikaragarri egin zuen gora emakume militante sozialisten kopuruak: 1905. urtean, 4.000 emakume zeuden langileen alderdian, 1908. urtean 29.458, eta 1910. urtean 82.642.

Halaber, azpimarratzekoa da AEB-

etan emakume proletarioek erakutsitako indarra, eta gogora ekartzekoa da Lucy Parsons. Emakume beltza zen Parsons, eta langileriaren askatasun osoaren alde dena eman zuen militantea. Haren esanetan, “arraza eta genero zapalkuntza klase esplotaziotik eratorritako opresio forma zehatzak dira”. Horregatik, langile klaseko emakume beltzen eta txurien arteko batasun politikoa aldarrikatzen zuen. Pauline Newman eta Rose Schneiderman ere emakume sozialistak ziren, eta haien borrokei esker boto eskubidearen aldeko borrokaren klase-ertain izaera irauli eta langileriaren borroka sufragista artikulatzen hasi zen. 1908. urtean, Alderdi Sozialistak emakumeen komisió nazionala sortu zuen, boto eskubidearen aldeko borroka helburu zuena.

Emakumeen antolakuntzarako goranzko joera horrek, helburu zehatzen eta horiek erdiesteko tresnen identifikazio eta garapenaren beharra azaleratzearekin batera, emakumeen arteko mundu mailako harremanak ezartzeko aukera mahaigaineratu zuen. Eta ez zioten aukera horri ihes egiten utzi, egoerak eskatzen zuen konpromisoaz jabetuta, antolakuntzaren bidean urratsak egiten jarraitu zuten munduko hainbat txokotako emakume sozialistek. Horren adibide dira emakumeen konferentzia propioen antolaketa nahiz Emakume Sozialisten mundu mailako

konferentzietan landutako edukiak eta ezarritako erronkak.

Emakume Sozialisten Mundu Mailako Lehenengo Konferentzia 1907. urteko abuztuaren izan zen, Stuttgarten. Bi helburu zituen: lehena, emakume sozialista antolatuen arteko harreman iraunkor eta egonkorrak garatzea, eta bigarrena, emakumeen bozka eskubidearen aldeko borroka.

Aurreneko helburuari begira, mundu mailako ordezkartza bat sortzea erabaki zuten. Bertara, herrialde bakoitzeko emakume sozialisten mugimenduaren egoera jasoko zuen analisi bat bidali beharko zuten. Ordezkaritzaren egoitza Alemanian egotea adostu zuten, Stuttgarten. Horretaz gain, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratiko *Berdintasuna* izeneko emakume sozialisten aldizkaria emakume sozialisten mundu mailako zabalpen eta adierazpen organoa izatea adostu zuten. Era berean, alderdi sozialisten barruan emakumeen organoak egotea proposatu zuten. Haien aburuz, horrek ekarpen interesgarriak egingo zituen antolaketa eremuan nahiz eremu politikoan. Dena den, konferentzian salatu zuten, emakume proletarioen egoera politiko eta soziala ezin larriagoa izan arren, gizonezko proletarioak oraindik ez zirela horretaz erabat kontziente, eta beraz, alderdiaren baitan emakumeen espazioak egoteak alderdiaren baitako



Emakume langilearen egunaren sorrera, une koiuntural huts bati lotutako erreakzioa izatetik urrun, langile alderdiek markatutako pauso taktikoa izan zen

gizonei presioa egitea ahalbidetu zezakeela, emakume langilearen egoeraren aurkako borrokan parte hartze aktiboa izan zezaten.

Horretaz guztiaz gain, gaur egun gogora ekarri beharrekoa da 1910. urtean Kopenhagen egindako Emakume Sozialisten Mundu Mailako Bigarren Konferentzia ere. Klara Zetkinen mundu mailako emakume langilearen eguna antolatzea proposatu zuen orduko hartan. Emakume langilearen egunaren sorrera, une koiuntural huts bati lotutako erreakzioa izatetik urrun, langile alderdiek markatutako pauso taktikoa izan zen. Hain zuzen, emakumeen mugimendu sozialistaren garapenaren emaitzetako bat izan zen Martxoaren 8aren sorrera.

EGUNGO TESTUINGURUA

Behin historiak utzitako zenbait zertzelada berrikusita, goazen egungo egoera behatzera. 2008-2009 urteetatik gaur egunera arteko testuingurua krisi testuinguru gisara ulertu izan da.

Baina zer da krisi testuingurua eta zein dira horren eragin sozialak?

Krisia bere forma ekonomikoan eta ikuskera kapitalistan, akumulaziorako ezigaitasunean definitzen da. Kapitalaren osaera organikoa haziz doan heinean, kapital konstantearekin are eta gainbalio gehiago gehitu behar zaio; hau da, kapital konstantean egiten den inbertsioa gero eta handiagoa izan behar da, gainbalio masak jaisteko joera izan arren. Horrela, ekoizpena handitzean, merkantzien balioa jaitsi eta lan indarraren balioa jaistea lortzen da, soldatuk murriztuz. Metaketak jarrai dezan, kapital aldagarria bideratutako gainbalio zatia murrizten da. Une horretatik aurrera, Paul Mattickek dion bezala "kapitalaren patua proletarioaren pobretzearen gain dago".

Burgesiaren klase interesak langileen pobretze absolutuaren lepotik soilik asebate daitezke, krisi momentuetan etekina lortzeko mantendu beharreko gainbalioa lortzeko forma bakarra langileen esplotazio gero eta


basatiagoan oinarritzen baita. Beraz, ordura arte baldintza aburgesatuetan bizitako langilearen zati handi batek bere azalean ezagutuko ditu bizi baldintzen kaskartzeak. Hau da, bere azalean ezagutuko du proletarioaren prozesua: etxebizitza propioa izateko ezintasuna, oinarritzeko elikaduran murrizketak egin behar izatea, prekaritate emozional eta soziala, lan baldintza eskasak, behin-behinekotasuna bizitzaren alor guztietan, osasungintza zerbitzu eskasagoak... Bestela esanda, proletarioaren prozesua gaitasun ekonomikoaren murrizketa eta pobrezia-aren areagotze zuzena da.

Gaur egungo gizartea proletarioaren prozesu bete-betean sartuta dago, eta une horretan beharginen lan baldintzak etengabe okertzen dituzten esplotazioaren forma gero eta perfektionatuagoak agertzen dira: lan partzialak, kontraturik gabekoak, praktika kontratuak, ikasketa dualak... Egoera horrek, oraindik ere egoera lazgarriagoan uzten ditu emakume langileak.





Proletarizazio prozesuaren ondorioz ireki den ofentsiba kulturala ere aipatzekoa da, batez ere, biolentzia matxistaren gorakadarako sortu diren baldintzak direla-eta



Emakume langileen bizi baldintzen okertzearen eta horren aurrean sortzen ari diren proposamen politiko – feminismo hegemonikoa – mugatuen aurrean, gaia ikuspegi proletario batetik lantzeko hautua egin dute ildo sozialista elikatu nahi duten antolakundeek

Lan feminizatuenetan edo esku lanera mugatzen diren lanetan beharginen baldintzak miserableak dira gaur egun ere. Esanguratsuak dira azken urteotan piztu diren borroka guztiak, esaterako, erresidentzietako langileenak edota garbiketako langileenak. 6.700 lagun aritzen dira Gipuzkoako garbikuntza sektorean eraikinak eta lokalak garbitzen; horietatik 1.500ek baino gehiagok enpresa ituna dute. Gainontzekoei, 5.000 baino gehiago, Gipuzkoako hitzarmena ezartzen zaie. Garbikuntzan diharduten langile gehienek – %85 – eraikin eta lokalen garbiketetan dihardute; gainontzekoek, kale garbiketetan. Emakumeak dira nagusi eraikin eta lokalen garbiketetan – %80 –, alde handiz. Aldiz, kale garbiketean aritzen diren ia lagun guztiak gizonezkoak dira – %80 baino gehiago –. Lanaren sexu-banaketa oso nabarmena da, beraz, garbikuntzaren sektorean. Horrek soldata arrakala eragiten du, sektore feminizatuetakoa langileen kaltetan. Gipuzkoako garbikuntzan, adibidez, %28ko aldea dago kale garbiketako eta eraikin eta lokalen garbiketako langileen artean.

Proletarizazio prozesuaren ondorioz ireki den ofentsiba kulturala ere aipatzekoa da, batez ere, biolentzia matxistaren gorakadarako sortu diren baldintzak direla-eta: 2019. urtean, gutxienez lau emakume izan ziren erai-

lak Euskal Herrian, EHko Emakumeen Mundu Martxaren datuen arabera. *Feminicidio.net* atariaren arabera, aldiz, 99 izan ziren 2019. urtean Espainiako Estatuan gizon baten eskutik eraildako emakumeak. Egunero irakur daitezke hedabideetan sexu jazarpenak jasan dituzten emakumeen albisteak, talde bortxaketenak...

BIDEA, EGITEKO

Emakume langileen bizi baldintzen okertzearen eta horren aurrean sortzen ari diren proposamen politiko – feminismo hegemonikoa – mugatuen aurrean, gaia ikuspegi proletario batetik lantzeko hautua egin dute ildo sozialista elikatu nahi duten antolakundeek. Testuinguru ekonomiko eta sozialak – krisia eta proletarizazio prozesua – emakume langilearen eta, batez ere, emakume proletarioen bizi baldintzak nabarmen txarrera egitea eragin du. Emakumeen zapalkuntza ikuspegi proletariorik lantzeak, auzia gizartearen dominazio estrukturan funtzio gisa identifikatzea dakar. Finen, osotasunaren baitako auzi gisara kokatzearren beharraz ari gara, auziaren lanketa egungo errealitate sozialaren analistatik abiatuz.

Analisi historikoei berebiziko garrantzia dute prozesu iraultzaileetan. Interesgarria eta aberasgarria da langile mugimenduak dituen ehunka urteen

analisi kritikoa gauzatzeko gaitasunak lortzea eta horretan jardutea, bertatik ateratako irakaspen politikoek ekarpen nabarmena egingo baitute etortzeko dauden borroka prozesuetan eta estrategietan. Egungo egoerak analisi propioa exijitzen du, baita taktika eta estrategia berriak ere. /

HORRELA ZIOEN CLARA ZETKINEK

“La revolución mundial no significa únicamente la destrucción del mundo y del capitalismo, significa también la construcción del mundo y la creación del comunismo. Inspirémonos en el significado real del mundo: preparémonos y preparamos a las masas, con el fin de que quizás se conviertan en las creadoras mundiales del comunismo.”

LA ORGANIZACIÓN DE LAS MUJERES TRABAJADORAS (1922)

BIGARREN MAILAKO LANGILEAK

IKUSPUNTUA

Martin
Goitiandia



Rosa¹ goizeko 5:50etan iristen da Gasteizko Letren Fakultatera, 6:00etan puntuan hasi behar baita lanean. Gogorra da goizeko txandan lanean aritzea, baina ez du beste aukerarik arratsaldean semeaz arduratu behar bada. Behin baino gehiagotan saiatu da gerentearekin hitz egiten ordutegiak moldatzen saiatzeko, baina horrek dio ordutegiak unibertsitateak jartzen dituela, eta fakultateko administratzailearengana jo duenean hori enpresaren kontua dela erantzun diote. Ondorioz, semea eskolatik goizago ateratzen hasiko denean «kontziliazioa» delakoa lortzeko lanaldi murritzua edo eszedentzia eskatzea izango da haien aukera bakarra. Clara, aldiz, arratsaldeko txandan dago Bilboko Ingeniaritza Fakultatean, 18:00etatik 00:00etara. Hiru aldiz joan da medikuarenera esku-muturreko eta bizkarreko mina dela-eta; dirudienez

lunbagoa du. Gauzak are gehiago okertzeko, gaur lan bikoitza du: U-30eko greban fakultatean egin ziren pintadak garbitu behar dituela esan diote. Orain arte beste langile batzuk kontratatu izan dituzte horrelako lanetarako, baina enpresak erabaki du merkeagoa dela berak egitea, bere ohiko lanaz gain. Alejandra, azkenik, Arkitekturako Fakultatean aritzen da. Alabak, berak egin zuen bezala, Historiako Gradua egiteko joan-etorria egiten du egunero Gasteizera. Baina ikasketak gero eta garestiagoak direnez eta alabari beka kendu diotenez, irizpide akademikoak ez betetzeagatik, eta senarrak taberna itxi zuenetik, garbiketa-lanetan hasi behar izan zen, ordutegi finkoa duen lan bat izateko.

Garbitzaile horiek ez dute unibertsitateko beste langileek baino lan gutxiago egiten, beren lana ez da besteena baino arinagoa. Are gehiago, irakasle finko



Martin Goitiandia







Garbitzaileek bere egoera hobetzeko unibertsitateko beste langile klaseko edozein sektorek baino premia gehiago badu ere, baldintza okerrenak ditu borrokarako. Klase-batasunaren nozio oinarritzkoenak ere ahaztuak daudela dirudi: ikasketen kostua, ordezeko irakasleen egoera ezegonkorra edo ikerlarien zabor-kontratuak ez dira ikasle, irakasle edo ikerlarien arazoa, denona baizik. Horregatik egin behar dugu denok garbitzaileekin bat

batek baino ordutegi okerragoak, lan gogorragoa eta baldintza kaskarragoak dituzte, eta, hala ere, soldata eta prestigio txikiagoa dute. Ume txiki bat ere konturatuko litzake, UIB-ren programan jartzen duen bezala, soldatak berdin beharko liratekeela. Hori horrela izan arren, martxoan greban haste-ko erabakia hartu dute garbitzaileek. Nola iritsi dira egoera horretara?

2015ean sektoreko hitzarmena indargabetu zuten. Hitzarmen horretako aurreeraginaren klausula batek zioen berri bat negoziatu arte zaharra aplikatzen jarraitu behar. Hori aplikatu ordezkari, EHUK kontratatutako dituen enpresek hitzarmen berri bat negoziatzeko aukera blokeatzen zuten bitartean hitzarmen zaharra aplikatzeaz uzten hasi ziren. Horrenbeste laudatzen den negoziazio kolektiboa inongo begirunerik gabe saltatu dute enpresa horiek irabazia handitzeko aukera ikusi duten unean bertan. Baldintzen okertzea aspektu askotan gertatzen ari den arren, greba nagusiki bi eskari soilik lortzeko deitu da. Alde batetik, lanean pasatzen dituzten hiru urtero betetanazkoak soldata handitu beharko lieketelako. Enpresak «trienio» deituriko igoera horiek ordaintzetik ihesean ari dira: 2019an kobratu zituzten, adibidez, 2016tik zor zitzaizkien ordainketak. Patronalak igoera horiek oso altuak direla errepikatzen du, baina nola ez dira hala izango hezkuntza sektoreko soldata baxuenak badituzte garbitzaileek? Nola ez da betetanazkoak kobratuko, horrelako lan errepikakor batek gorputzean eragiten dituen kalteekin? Bestetik, 2000. urtean sinatu zen hitzarmenean jasotzen zen arren, inoiz jaso ez duten plus bat eskatzen dute: urteko 2200 euroko plus bat. Plus hori ez da beren lan gogorra aitortzeko modu bat, hezkuntzako gainerako lan-

gileek jasotzen duten plus bat baizik. Hezkuntzan lanik gogorrena eta beharrezkoena egin arren, beste langile guztiek kobratzen duten plus bat ukatzen diete. Hausnartu dezagun apur bat, mesedez: ez dira haien baldintzak hobetzea eskatzen ari, ez eta haien lanari dagokion aitormena eskatzen ari; hitzarmenean duela 20 urtetik jasota zeuden neurriak aplikatzeko eskatzen ari dira. Teorian grebak hitzarmenak lortzeko diren arren, orain langileek hitzarmena eta legea aplikatu dadin ere borrokatu behar dute: hitzarmeneko zati bakan horiek aplikatu daitezkeen bost astez egin beharko dute greba, pentsa! Non daude orain epaileak, fiskalak, lan-ikuskariak eta zuzenbide burgesaren pantomima eta hitzontzikeria guztiak?

5 urteko borrokaren ondoren nekatuta eta frustrazioz begiratzen diote panoramari. Haien soldata igoera horiek patroiak ordaindu beharko lituzke; garbiketa enpresek. Hemen hasten da arazoa, enpresa horiek langileek eskatzen dutena ordaintzeko nahikoa diru ez dutela diotenean. Enpresa horiek zerbitzuagatik kobratzen dutena Hezkuntza Departamentuarekin negoziatzen dute lehiaketa publiko baten bidez (Eusko Jaurlaritzak garbiketa behar duela argitaratzen du, eta baldintza onenak eskaintzen dituen enpresari egiten dio kontratua). Patroiek honakoa argudiatzen dute: beste enpresekin lehiari prezio baxuegiak eskaintzera behartuak daudela eta, beraz, ez dutela dirurik. Kontratu horiek, alabaina, 5 urtean behin ateratzen dira lehiaketara, beraz, ugazabek irakurtzen badakite, jakingo zuten hitzarmenean zer jartzen zuen kontratua onartu aurretik. Baina, tira, horrelakoxea da merkatu librearen ezta? Hori ikusirik, Eusko Jaurlaritzara jotzen dute garbitzaileek (mobilizazio gehienak Lakua parean



izaten dira), Hezkuntza Departamentuarekin hitz egin nahian. Gobernuak, horren aurrean bere karta klasiko bat erabiltzen du: hori langileen eta patronalaren arteko gatazka bat denez, Jaurilaritzak bezero den heinean ez duela ezer esateko. Ale, eta hori esan bitartean merke-merke jasoko ditu garbiketa zerbitzuak. Pentsa, hala ere, egoera zein den: langileak, patronalaren aurrean babesgabe, Jaurilaritza presionatzen saiatzen dira enpresei gehiago ordaindu diezaien (gero ikusi beharko da igoera horretatik zenbat den garbitzaileentzat). Dena den, zalantza izpirik gabe nire gustukoena EHUren posizioa da: bereak dira garbitzaileak, bere zentroetan egiten dute lan, baina iritsarazten digun propagandak behin eta berriro hitz egiten badu ere, unibertsitatearen balore eta Gizarte Erantzukizunaz, ez du hatz bat ere mugitu garbitzaileen alde. Hiru otso ditugu eta hirurak ardiz jantzi dira. Patronala eta Eusko Jaurilaritza garbitzaileen kontura aberasten ari dira, EHUK beste aldera begiratzen duen bitartean. «Arrisku moral» gisa ezagutzen denaren adibide argia da. Egoera honetan ez dago esplotazioa geldituko duenik langileen borroka ez bada.

Garbitzaileek haien egoera hobetzeko unibertsitateko beste langile klaseko edozein sektorek baino premia gehiago badu ere, baldintza okerrenak ditu borrokarako. 2016an 5 eguneko greba baino ezin izan zuten deitu, eta laugarrenean jada zerbitzu minimoak handitu zizkieten beren «grebarako eskubidea» zapuztuz. Haiek grebatik bueltan zikindu den guztia garbitu behar izaten dute; imajinatu lantegi batera itzultzen diren langileek greba egunetan egin ez duten lana egin beharko balute. Lan-egoera ezegonkorra dute langile hauek, eta gehienek beren menpe norbait dutenez (seme-alabak,

adibidez), lanpostuarekiko dependentzia horrek borroka zailtzen du, beldurragatik. Haien egoera zaurgarriaren seinale da patronalak langile komiteekin negoziatzeko orduan duen jarrera. Clarak kontatu dit behin enpresaren negoziatzaile bat haren aurrean eseri zela eta mugikorrari begira honako hau esan zion: «Pues aquí vengo, a calentar la silla». Babesgabetasun horretan funtsezkoa bihurtzen da horrenbeste errepikatzen dugun langile elkartasuna: garbitzaileen egoera ez da garbitzaileena, langile klase osoarena baizik. Horregatik azpimarratzen dugu batera antolatu eta jarduteko beharra eta betebeharra. Inoiz baino hautsiago dago batasun hau. Horren adibide da Alejandrari 2016ko grebatik bueltan unibertsitateko beste langile batek esan zion lehen gauza: «greba egin dezakezue dena zikina utzi gabe». Klase-batasunaren nozio oinarritzkoenak ere ahaztuak daudela dirudi. Ikasketen kostua, ordeko irakasleen egoera ezegonkorra edo ikerlarien zabor-kontratuak ez dira ikasle, irakasle edo ikerlarien arazoa, denona baizik. Horregatik egin behar dugu denok garbitzaileekin bat. /

¹ Izen eta identitate guztiak asmatuak dira anonimotasuna gordetzeko, baina datu eta istorioak egiazkoak.

Kapitalismoaren gaindipena ala basakeria: Zaldibarko gertaerak dakarren ondorioa

Euskal Herri osora hedatu da Zaldibarko erraustegian gertaturiko guztia. Ez da beste ezertaz hitz egiten azken asteetan. Dakigun bezala, bi langilek desagerturik jarraitzen dute eta zabortegiko materialek jasandako suek ke toxikoa zabaltu dute inguruko herrietara. Horrek arriskuan jarri du milaka herritarren osasuna. Irabazien ekoizpenak (zeina kapitalismoaren helburu baita, hain justu) sorturiko egoera baten aurrean gaude, egungo gizarte eredu burgesak sortutako ondorioak baitira, hain zuzen, soldatapeko langileen erailketa eta krisi ekologikoa.

Gertakizun honek guda politikoa sortu du gertatu eta berehala, eta horrek zerikusi zuzena dauka EAEko hauteskundeak apirilean izatearekin. Hauteskundearen elementuak, dakigun moduan, berebiziko garrantzia du edozein gertakizunen aurrean hartu beharreko jarreretan logika horretan diharduten askotariko bloke politikoentzat. Eta askotariko bloke politiko horiek Zaldibarko auzian erabili dituzten argudioek argi utzi dute joko zela politikoa berean jokatzeko ari direla: Estatu burgesaren administrazioaren joko zelaian. Bloke sozialdemokratek ere (EH Bildu eta Podemos, kasu) botere klasistaren egitura politikoa oinarritzkoenaren (Estatu burgesa) gestio formetara murriztu dituzte auzi honi dagozkion kritikak.

Gauzak horrela, beharrezkoa deritzot auzi honi buruz sozialistak ikuspuntua azaleratzea, horrelako desagertze oinarria administrazio forma hutsetik haratago doalako; gertaera hauen eta sistematikoak diren ezbeharren oinarria sistema kapitalistaren zutabeetan aurkitu behar dugu.

Egungo sistemaren birproduktzioa ahalbidetzeko erroa burgesiarentzako irabazien ekoizpena da, diru forman. Momentu hau hedatu eta betikotzeko helburuarekin bizi da gizarte eredu burgesa eta Estatu burgesak epaitzen ditu gizarte honen nondik-norakoak. Osotasun guzti honen parte gara langile klasea ere, eta klase politiko bihurtu ezean, betiko menperatu kondizioa onartu beharrean suertatzen gara. Eta irabazi gero eta handiagoak ekoiztearen beharraren aurrean, soldatapeko langileak erailtzen dituzte lanpostuan zein lanpostutik kanpo (11 + 2 desagertu dagoeneko 2020. urtean Euskal Herrian). Klase kondizioagatik. Gainera, burgesiak irabazi gero eta handiagoak ekoizteko beharraren aurrean, munduko ekologia suntsitzen da, klase menperatzailearen boterea handitzeko soilik (hurrengo hamarkadetako klima aldaketa, kasu). Klase kondizioagatik. Beraz, kapitalismoaren funtzionamendurako gure ustez ezbehar direnak (Zaldibarko kasua adibidez), sistemarentzat «beharrak» dira, hau da, sis-

temari atxikiak zaizkion gertaera gisa identifikatu behar ditugu.

Kapitalismoaren momentuko baldintzek eta sistema horren barruan hezten diren bi klase antagonikoen kontzientzia sozialak unean uneko klase borrokaren egoera determinatzen dute. Sozialistok badugu esperientzia nahikoa prozesu sozialista historikoan oinarritzko tesi batzuen beharrezkotasuna azaleratzeko. Kasu honetan, iraultzaren beharrezkotasunaren tesiari ari naiz: kapitalismoa mantentzen duen botere burgesa suntsitzeko iraultzaren prozesu historikoa gertatu (antolatu) behar da (dugu), klase menderatzaileak ez baitu bere boterea dohainik oparituko. Klase menderakuntza seinatu ez eta Estatu burgesaren erreforma parlamentarioaren bidez menderakuntzen amaiera eman daitekeela planteatzen dutenen tesiak historikoki gezurtatuak daude.

Baina historia behin baino gehiagotan errepika daiteke, errepikarazten duten baldintza aurretik gainditzea lortzen ez bada. Gaur egun berriro azaltzen zaigu erronka: Erreforma ala Iraultza.

Zaldibarko kasuaren kritiken argudioei erreparatuta, ikusten da erreforma eta iraultzaren arteko talka konkretua gertatzen dela. Erreformistei dagokienez, diskurtso politikoa «gestio txarrera» murrizten da, botere

Irabazien ekoizpenak (zeina kapitalismoaren helburu baita, hain justu) sorturiko egoera baten aurrean gaude, egungo gizarte eredu burgesak sortutako ondorioak baitira, hain zuzen, soldatapeko langileen erailketa eta krisi ekologikoa

Zaldibarko zabortegiaren kasuak berriro mahaigaineratu du kapitalismoaren erroen biolentzia. Egunerokoan sufritzera kondenatzen gaituzten arren, horrelako gertaera larriek sistemaren erroa bera erasotzearen beharra azaleratzen dute, hau da, klase dominazioa erasotzearen beharra. Gero eta argiago gelditzen ari da: kapitalismoaren gaindipena ala basakeria

burgesen administrazio forma bat edo bestera, hain zuzen ere. Horrela, boterearen fundamentuak aipatu gabe gelditzen dira behin eta berriro, eta kritika politikotik urruntzen da irabazien ekoizpena eta altzoan daraman gizarte eredu. Finean: boterea klase esplotatzailearen eskuetan dagoela ahaztarazten da (klase borroka bera ahaztarazten da), eta arazo sozialak alderdi konkretu baten «akatsek» sortutakoak direlako mitoa ekoizten da. Zaldibarko zabortegiaren gertaeretan, sozialdemokratek EAJri egiten diote kudeaketa txarraren kritika, ez omen dutelako behar zen bezala jardun egoera horren aurrean eta beraien alderdia ustela omen delako. Hortik aurrera ez dago kritikarik. Institutuzio burgesak kudeatzeko beste aukera baten moduan azaltzen da sozialdemokrazia. Ez da inon ageri kapitalismoaren funtzionamenduaren erroak berak duen eragin fundamentalak. Berriro ere kapitalismoa bera epaitu eta honen aurrean klase menderatzaileen erantzukizunak

seinalatu beharrean, alderdi konkretu bat ala bestea epaitzen dira.

Argi dago EAJ aditua dela ustelkerian, eta azken hilabeteetan kasuak pilatzen ari zaizkio. Baina badaude alderdi horri dagozkion elementu garrantzitsuagoak: euskal burgesiaren ordezkariak dira, lurraldeko negozioen plataforma diren neurrian. Horrek ustelkeria kasu batzuetan kondenatuak izateko arriskua ematen dien arren, EAE gobernatzeko eta beraien beharren arabera antolatze gaitasuna ematen die. Laburki esanda, ez dira administratzaile txarrak: Euskal Herriko klase etsaierako bat dira.

Sozialistoi dagokigunez, koiunturako auzien konplexutasuna klase konposizio politikoaren analisiaren luparekin begiratu behar dugu. Guk ez dugu interes partikular parlamentarioetara subordinatzen gizarte eredu eta errealtate kapitalistak sortzen dituzten askotariko biolentzia formak; beste gizarte eredu baten beharra aldarrikatzen dugu, klase kondizioagatik

subordinatuak garenon elkartasuna eta antolakuntza bultzatzen duena, iraultzarako baldintzak ekoizteko asmoz. Gizarte eredu sozialista eraiki nahi dugu, eta horretarako, uneoro identifikatu behar ditugu sistemaren klase determinazioa eta bertan jarduten duten etsai eta agente politikoak.

Zaldibarko zabortegiaren kasuak berriro mahaigaineratu du kapitalismoaren erroen biolentzia. Egunerokoan sufritzera kondenatzen gaituzten arren, horrelako gertaera larriek sistemaren erroa bera erasotzearen beharra azaleratzen dute, hau da, klase dominazioa erasotzearen beharra. Gero eta argiago gelditzen ari da: kapitalismoaren gaindipena ala basakeria. /

IKUSPUNTUA

Aitor
Bizkarra



JAINKOAK EZ DU DADOETAN JOKATZEN

Fredric Jamesonek postmodernismoa kapitalismo berantiarren logika kultural gisa bataiatu zuen. Zioen, halaber, postmodernismoa ez dela gertakari soilik kultural bat, AEBen dominazio militar eta ekonomikorako estrategien gainegiturazko efektu orokor bat baizik. Ezagutzaren teorian postmodernismoaren itzulpen behinena objektibitatearen, egiaren eta antzeko balio epistemikoen ukapenean datza. Normalki, kultura sozialistaz zerbait berriaren eraikuntza balitz bezala mintzatu ohi gara, baina logika kultural honi kontrajarri beharreko erresistentziaz jardungo dut gaur, episteme baten berreskurapenaz.


«Jainkoak ez du dadoetan jokatzeko!» aldarrikatu omen zuen Albert Einsteinek behin baino gehiagotan, aztoratuta, mekanika kuantikoa teoria osatugabea zelako, kausalitatearen printzipioa urratzen zuenez. Ez naiz esaldi honen egiazkotasunari buruzko auzian sartuko nire konpetentziak soberan gainditzen dituen eztabaida delako, baina badago esaldi horretan lerro arteko printzipio bat XX. mendera arte, behintzat, zientziaren posibilitate-baldintza funtsatu duena: zientziaren sortzeko optimismo ontologikoa. Optimismo ontologikoa errealitatearen izaerari dagokion optimismoa da. Hots, errealitatea hor dago eta gure esku-hartzeaz independenteki da arrazionala, alegia, ez da kontingente edo ausazkoa, beharrezkoa eta kausazkoa baizik.

Dena den, postulatu ontologiko hau beharrezkoa da, baina ez da nahikoa zientzia funtsatu ahal izateko. Izan ere, har dezakegu printzipio gisa jainkoak ez duela dadoetan jokatzeko edo unibertsoan gertatzen dena ez dela zori edo mentura hutsa, baina, gakoa jainkoa zertan jokatzeko ari den jakitean da

(zein den zehazki errealitatearen arrazionalitatea). Eta, horretarako, errealitatea arrazionala dela postulatzeko gain, gizakiak haren egitura logikoak atzeman ditzakeela ere postulatu beharra dago, errealitatearen arrazionaltasuna eta gizakiaren arrazoimena bateragarriak direla, efektu bakoitzarentzat bere kausak zein diren determinatu daitekeela, alegia. Hauxe da zientzia funtsatzeko bigarren printzipio beharrezkoa, optimismo epistemologikoa edo ezagutzari dagokion optimismoa: «Ezagutu daiteke jainkoa zertara jokatzeko ari den».

Behin hona iritsita norbaitek galde lezake, «aizu, zertarako zientziaren filosofiako sarrera handinahi hau kulturako ataleko ikuspuntu batean?»; bada, hain zuzen ere, errealitate kulturala zeharkatzen duen arrazionaltasun bat badagoela postulatzeko dugulako, eta horrekin nahikoa ez, eta arrazionaltasun hori, izateaz gain, ezagugarria ere badela defendatzen dugulako.

Sistema ez organikoen jokabidea ausazkoa ez dela esatea, adibidez, kausazkoa dela esatearen baliokide izan daiteke. Esaterako, tornado baten jokabidea auresatea, bere mugimendua eragiten duten kausak ezagutu eta horien araberako jokabide programa birtual bat marraztea da. Hain da garrantzitsua kausen ezagutza! Eta ez da garrantzitsua interes epistemiko hutsagatik; zalantza egingo nuke ezagutzeko interes hutsa existitzen ote den ere. Garrantzitsua da, batez ere, mugimendu determinatu baten kausak ezagutzen dituenak, jokabide programa auresateaz gain, baldintzatu eta manipulatu ere egin dezakeelako jokabide programa hori edo haren arabera bere jokabide propioa ere moldatu dezakeelako. Urakan baten jokabidea aurrean daiteke eta horren araberako ebakuazio plan bat



**Behin hona iritsita
norbaitek galde lezake,
«aizu, zertarako
zientziaren filosofiako
sarrera handinahi
hau kulturako ataleko
ikuspuntu batean?»; bada,
hain zuzen ere, errealitate
kulturala zeharkatzen
duen arrazionaltasun bat
badagoela postulatzek
dugulako, eta horrekin
nahikoa ez, eta
arrazionaltasun hori,
izateaz gain, ezagugarria
ere badela defendatzek
dugulako**

**Badakigu haserre egote
hutsak ez gaituela
ezagutzarako posizio
pribilegiatuan ezartzen;
eztabaidagarria da gure
klase posizioak eta
klase gorrotoak subjektu
epistemikoki pribilegiatu
egiten gaituenik (nahiz
eta aski tesi hedatua izan
den), baina ezagutzak
gure haserrearen kausei
aurre egitea ahalbidetuko
digu**

zehaztu, eta gure gorputza bezalako sistema organiko baten jokabidea baldintzatu daiteke farmako bat txertatuz. Hain da botereatsua kausen ezagutza! Ezberdintasunak ezberdintasun, bloke kultural eta politikoen jokabideari ere antzeko eskema bat aplikatu ahal izan beharko litzaiekela uste dut. Esaten ari naizenaz ohartzeko, Kazeta honetako azken editoriala edo Beñat Aldalurren azken testua irakurtzea besterik ez da behar, non U30eko greba moduko fenomeno baten kausa politiko-ekonomiko efektiboak aztertzen baitira eta, hori gutxi balitz, etorkizun hurbilenerako aurreikuspenak egiten baitira. Badago dogmatiko deitzen gaituenik, baina guk badakigu esperientziaren tribunala dela gure analisiak balioztatu ala faltsutuko dituen bakarra.

Paul Beitiak, berriz, bere azken testuan zioen kultura kontzeptuaren elementu funtsezkoenetako bat ulermen-marko konpartitu bat izatea zela, hots, kultura bat partekatzea mundua ulertzeko eta epaitzeko era bat partekatzea dela. Esan gabe doa ulermen-marko hau ez dela kritikoa eta kontzientea, irreflexibo eta espontaneo baizik. Dena den, zentzu komun espontaneo hau (Gramscik folklore filosofiko izendatu zuena) aldatzeko borondateak ezin du *de facto* zentzu komun espontaneo berri bat ezarri, hain zuzen ere zentzu komuna konbatitzea ariketa kritiko eta kontzientea delako. Honekin esan nahi dudana zera da, zentzu komunaren aurka erabili behar dugun tresna, berreskuratzen saiatzen ari garena, episteme bat dela, jakintza eta ulermen-marko kritiko bat, belaunaldi pare bat barru akaso zentzu komun berri bat produzitu dezakeena. Episteme hori marxismoa da, teoriaren eta antolakuntza politikoaren pentsamendu integratu moduan, proletalgo iraultzailearen zerbitzura jarria. Gramscik zioen nota marjinal batean kultura berri bat sortzea ez dela soilik indibidualki aurkikuntza «originalak» egitea, ezpada, batez ere, jada aurkitutako egiak kritikoki zabaltzea, sozializatzea, eta gure jardun bitalaren oinarri bihurtzea. Egiak ez dira sinetsi behar, kritikoki barneratu baino. Egiarekiko, ordea, (postmodernoen aurka) konpromisoa eduki beharra dago, zientziaren fundamentu moduan.

Badago Ziakhus raperoaren esaldi nire ustez bikain bat arestian esandakoak sintetizatzen dituen: «Kantek esaten zuen “sapere aude” eta nire kantek “haserre gaude!”». Kantek erabiltzen zuen latinezko esaldiak «ausar zaitez ezagutzera», «ausar zaitez jakitera», «ausar zaitez arrazoimena erabiltzera» edo antzerako zerbaite esan nahi du gutxi gorabehera, hau da, ezagutzeko hautua proposatzen du ausardia ariketa moduan. Bigarren zatiak zer esan nahi duen, ez Kantek diona baizik eta kantek dio-

tena, argitu beharrik ez dago. Dena den, Ziakhusek lerro horretan erabiltzen duen juntagailua (*eta*) emendiozkoa da, juntagaiak gehitzen dituen. Ez du esaten Kantek esaten zuela bata *baina* (juntagaien arteko aurkaritza erlazioa adierazten duen juntagailua) kantek bestea. Oso haserre gaude eta horrek ezagutzera bultzatu gaitu. Badakigu haserre egote hutsak ez gaituela ezagutzarako posizio pribilegiatuan ezartzen; eztabaidagarria da gure klase posizioak eta klase gorrotoak subjektu epistemikoki pribilegiatu egiten gaituenik (nahiz eta aski tesi hedatua izan den), baina ezagutzak gure haserrearen kausei aurre egitea ahalbidetuko digu. Ez gara da-dotan jokatzeko ari, joko-zelai oso konkretu batean egin dugu apustu. /



Kantek esaten zuten
“sapere aude”
eta nire kantek
“haserre gaude!”

KOLABORAZIOA

Rosa Cobo

PROS-
TITUZI-
OA KA-
PITALIS-
MOAREN
MUINEAN





Emakumeen gorputzak dira prostituzioaren industriako lehengaiak: arrisku txikiko eta etekin handiko salerosgaiak

XXI. mendeko prostituzioa ezin daiteke ulertu mendeetan zehar existitu den patriarkatuaren sortze-instituzio gisara soilik. Gaur egungo prostituzioa sexu-esplotazioaren industriaren markoan kokatzen da, eta industria hori, legez kanpoko ekonomian. Hori dela eta, Sheyla Jeffreys-ek azaldu zuen instituzio zahar hori ekonomia politikoaren markoan aztertu beharra dagoela.

Azken hamarkadetan aldaketa sakonak bizi izan dituen instituzio patriarkal zaharra da prostituzioa. Duela urte gutxira arte, bertako emakume prostitutez osatutako burdel multzo bat izan da prostituzioa, eta hainbat arduradunek kudeatzen zituzten negozio txiki horiek, batzuetan, era paternalista batean. Gero eta gutxiago gelditzen dira orain, eta gelditzen direnak guztiz eraldatu dira, bai forman, baita funtzionatzeko moduan ere. Klub txikiak desagertzen ari dira, batzuetan tarifa finkoa ere baduten burdel handiek ordezkatuta. Prostituzio modu zahar

horretan ez zegoen emakume migratzaile, ez eta zirkuitu kriminalen bidezko emakumeen salerosketarik ere. Beste era batera esanda, antzinako prostituzioa ez zen gaur dagoenaren moduko sexu-esplotazioaren industria handiaren parte.

Kapitalismo berriak ahalbidetu egin du prostituzioa sare modura interkonektatuta dagoen industria handi bihurtzea, ekonomia kriminalari lotuta dagoena eta beste sektore ekonomiko batzuetan lotura sendoak dituena. Egun, ia ezinezkoa da jarduera ekonomikoaren punturen batean ekonomia kriminalarekin loturarik ez duen burdelen bat aurkitzea (emakumeen salerosketa edota diruaren zuritzea, adibidez). Industria horren “lehengaiak” emakumeen gorputza da, globalizazio neoliberalerako beharrezkoak diren bi baldintzak betetzen dituen salerosgai bihurtu baita: arrisku txikiko eta etekin handiko negozioa da.

Saskia Sassen-ek dioenez, bere politika neoliberaleraino, morrontza modu

berriak sortzea ari da ekonomia kapitalista. Morrontza berri horien muina, neurri handi batean, emakumeek eta migratzaileek osatzen dute, eta horien artean esanguratsua da prostituituriko emakumeen kopurua.

Prostituzioa garapenerako funtsezko estrategia bilakatzen ari da. Sassen-en arabera, garapenerako estrategien maila makroan sartzen dira emakumeak, funtsean, sexu-esplotazioaren eta ikuskizunaren industriaren bidez eta beren jatorrizko herrialdeetara bidaltzen duten diruaren bidez. Pobrezia maila altua duten herrialdeetako gobernuen estrategia da langileak esportatzea eta horiek dirua bidaltzea, langabeziari eta kanpo-zorrari aurre egin ahal izateko. Eta bi estrategia horiek nolabaiteko instituzionalizatzeko maila daukate, gobernuak gero eta mendeakoa bihurtzen dituena.

Langabezia-tasa altuak, pobreak, estatuak beharrian sozialei gero eta baliabide gutxiago eskaintzeak eta hainbat enpresak porrot egiteak ahalbi-

Rosa Cobo





Rosa Cobo



detu egiten dute nolabait instituzionalizatutako zirkuitu ugari existitzea, eta horietan batez ere emakumeak mugitzea. Hau da, zirkuitu horietan emakumeak mugitzen dira, etxeko lanetan eta prostituzioan jarduteko. Eta zirkuitu horietan sartzen dira pertsonen trafikatzailerak eta emakumeen trafikoari lotutako mafiak ere. Era berean, zirkuitu horiek instituzionalizatu egiten dira, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak zorpetuta dauden herrialdeei exijitzen dietelako aisialdiaren eta ikuskizunaren industria eraikitzeke, hala zorrak kitatu ahal izateko. Bada, haurren eta helduen prostituzioa sektore ekonomiko horren funtsezko atala da eta, horrekin batera, pobrezia maila altua duten herrialdeen garapenerako estrategia modura ezartzen da. Eta, bereziki, eskualde pobreetako landa-eremuan garapen ekonomikoa egiteko iturria ere bada.

Beste alde batetik, kapitalismo berriaren deslokalizazioaren adierazle ere bada prostituzioa, pobrezia maila altua duten herrialdeetatik ongizate handiagoa duten herrialdeetara mugitzen baitira emakumeak, baliabide ekonomiko nahikoak dituzten gizonek haien gorputzak sexualki erabili ahal izateko. Interkonektatutako negozio globala da prostituzioa, eta ekonomia kriminaleko mafiek prozesu osoa kontrolatzen dute: emakume gazte eta helduak beren jatorrizko herrialdeetan atzeman eta helmuga diren herrialdeetako burdeletan sartzen dituzte. Prostituituriko emakumearen gorputza betidanik salerosgaia izan den arren, globalizazio neoliberalaren garai honetan, indibidualismo posesibo basati honek markatutakoa, trafikatzailerak eta proxenetek asko gutzizatzen duten salerosgai bilakatu da emakume prostituten gorputza, etekin handia ematen baitu kostu txikiaren truke.

XXI. mendeko prostituzioa hiru botere-sistemaren intersektzioan soilik azter daiteke: patriarkatua, kapitalismo neoliberalak eta kolonialismoa elkartzen diren gunean, hain zuzen. /

Pobrezia-tasa altua duten herrialdeetan, garapenerako estrategia da prostituzioa

XXI. mendeko prostituzioa hiru botere-sistemaren intersektzioan soilik azter daiteke: patriarkatua, kapitalismo neoliberalak eta kolonialismoa elkartzen diren gunean, hain zuzen

IKUSPUNTUA

Adam
Radomski



BORROKA HORIZONTE BERRIAK: LOGISTIKA ETA GARRAIOA (I)

Greba orokorre bidezko aurreko artikuluan, logistikaren eta garraioaren kontua gaitetik aipatu nuen. Nahiz eta garraioaren blokeoari eta haren azpiegiturei aplikatutako taktikak lanetik harago doazen kasuetan aplikatu diren (2010eko Frantziako pentsioen greba), artikulua honetan gaiari lanaren esparruko ikuspegiarekin helitzen saiatuko naiz (Amazon, *dockers*, aireportuak...). Artikulu honetan gako batzuk azalduko ditut, eta bigarren zatian gehiago luzatuko naiz adibideekin.

Lehenago ere aipatu izan dugu krisiak berregituratzera behartzen duela kapitalismoa, kapitala metatzen jarraitu ahal izateko, eta horretarako, gero eta arazo gehiago ditu. Hala, ekoizpen orokorraren berregituraketaren esparruan, garraioak oso zeregin garrantzitsua izan du, eta bera ere berregituratuta da. 80ko hamarkadan jada pisu handia zuen arren, azken hamarkadetan izugarri hazi da, kapitalak sektore horretan teknologia berriak ezartzearen aldeko apustua egin zuenetik.

Horri gehitu behar zaio kapitalismoak mundu mailako hedadura duela, eta horri esker hornidura kateak ezarri ahal izan direla planetako hainbat lekutan aldi berean, ekoizpen, banaketa eta kontsumo prozesu bakar baten zati gisa. Honen helburua kostuak merkatzea da, adibidez, ekoizpen prozesuaren zati zehatzak lekuz mugituz, lan indarra merkeagoa den herrialdeetara. Deslokalizazioak, paradoxikoki, langileen kontzentrazio masiboak ekarri ditu berriro ere, lehen kapitalistek kontzentrazio horiek ahal zen moduan saihestu nahi izaten zituzten arren, aurreko klase borroka zikloak ikusita. Era berean, konplexutasun eta gigantismo maila handia ekarri du, benetako mega-enpresa globalekin (Amazon, WalMart, UPS, FedEx edo Ikea bezalako enpresak).

Izan ere, 50eko hamarkadan kontainerizazioaren fenomenoak gertatu zen, eta horrek salgaiak garraiatzeko edukiontzia erabiltzea ekarri zuen, arrunta bezain eraginkorra. Modu horretan, kopuru askoz handiagoak garraiatu zitezkeen, distantzia luzeagoetan, segurtasun handiagoarekin, eta batez ere, modu multimodalean; ontzi batetik kamioi batera edukiontzi bera deskarga zitekeen, horrek denbora asko aurrezten zuen, eta beraz, baita kostuak ere. Horrek esan nahi du konbinatu egiten direla merkantzia bakar baten garraioan, itsas garraioa, airekoa edo lehorrekoa. Hori guztia merkantziaren banaketa prozesua azkartzeko helburuarekin, distantziak haundiagoak baitira ("espazioa denborekin suntsitzea", Marxek esango lukeen bezala).

Horrek, honako ondorio honetara garamatza: merkantzia ahalik eta azkarren (eta egoerarik one-

Zirkulazio prozesua oso ahula da; izan ere, aldaketa batek hornidura kate oso bati eragin diezaioke, eta domino-efektua gertatzeko arriskua dago



Kapitalismoak etengabeko gerra egoera dakar, batzuetan ageriago besteetan ez horrenbeste. Beraz, ez da harritzekoa zientzia militar bat erabiltzea merkataritza garraioan aplikatzeko

nean) garraiatu behar da; dela ekoizpen zikloan berriz sartzeko (lehengai bat, adibidez), dela kontsumituko den lekura eramateko (janaria, adibidez, lan-indarraren ugalketarako), eta gainera, haren garraioak errentagarria izan behar du. Baina benetan gertatzen dena da merkantzia bat garraiatzen den denborak merkantzia horren balioa gauzatzea eragozten duela. Bestela esanda, ezin da saldu, eta ezin da kapitalaren pilaketa zikloa itxi; berdin dio ekoizpenean zehar plusbalioa atera badute, gero ezin badute gauzatu, merkantzia bat salduz; gainbalioa ezin da irabazi bihurtu.

Gainera, akats teknikoek (segurtasun teknologikoaren arriskuak), naturalek (hondamendiak) edo sozialek (gatazka politikoak eta grebak) ekar ditzaketen arriskuak gehitu behar zaizkio. Horrek guztiak esan nahi du zirkulazio prozesua oso ahula

dela; izan ere, aldaketa batek hornidura kate oso bati eragin diezaioke, eta domino-efektua gertatzeko arriskua dago. Entregatzeko orduan kamioi batek huts egiten badu, ontzia ezingo da kargamentuarekin atera, edo auto bat ekoizteko pieza bat falta bada, modeloaren ekoizpena atzeratu egingo da. Hori guztia maniobrarako oso denbora gutxirekin. Gero, langileen gatazkei buruz hitz egitean, patronalak zailtasun horiek saihesteko dituen moduak azalduko ditut.

Horren aurrean, kapitalak logistikari heldu dio; salgaien jarioa eta biltegiatzea antolatu, planifikatu eta kontrolatzeko modua, ekoizten direnetik kontsumitzen diren arte. 2006an, logistika sektorea munduko BPGaren %13,9 izan zen, eta 2016an, Espainiako estatuko BPGaren %8, eta krisiak eragina izan badu ere, bilioika euro mugitzen jarraitzen du



[IS TO ME]
shoes and boots
- welcome.es

[IS TO ME]
shoes and boots
- welcome.es

urtero; izan ere, herrialde garatuetan, sektore horretakoak dira kapitala metatzeko kuotarik handiena duten enpresak. Laburbilduz, logistikak merkatua zabaltzen du, hornidura kateen existentziari esker, garraioa kudeatzen duen eta merkataritza zirkulazioaren arriskuak murrizten dituen bitartean.

Ez da ahaztu behar kapitalismoak etengabeko gerra egoera dakarrela, batzuetan ageriago bestetan ez horrenbeste. Beraz, ez da harritzekoa zientzia militar bat erabiltzea merkataritza garraioan aplikatzeko, komunikazio sareen jarraitutasuna eta mugikortasun estrategikoa ziurtatu behar baitira. Horren isla da Bill Simon, itsas armadako ofizial bat, izatea WalMart erakundeko zuzendari exekutiboa 2014ra arte, eta militar ohiak kontratatzea kargu exekutibo eta gerentziako postuetarako.

Hizpide dugun gaia, “Iraultza logistikoa”, ulertzeko funtsezko beste kontzeptu bat *just-in-time* da (“justu garairako”). Salgaien biltegitratzea (stock) ahalik eta gehien murrizteko edo zuzenean ezabatzeko estrategia bat da, bai enpresak berak ekoizten dituenak (output), bai hornitzaileengandik jasotzen dituenak (input), horrela gastuak murrizten dira. Modu horretan, *just-in-time* delakoak ekoizpenaren eta zirkulazioaren esferari eragiten dio aldi berean, eta horregatik, banaketa ekoizpen prozesuaren zati izatera pasatzen da.

Eskala globalean arrakasta izan du ekoizpen sistemaren beharrek bat datorrelako: egungo konfigurazioaren ezaugarria da eskaria, oso aldakorra dena, erabakigarria dela eskaintzan. Horrek esan nahi du enpresek sekulako malgutasuna behar dutela eskariaren gorabeheretara azkar egokitu ahal izateko, gero eta epe laburragoak, baita egun gutxi batzuetakoak ere, eskatzen dituzten bezeroekin, eta beharrezkoa balitz hornidura katearen maila bat birlokalizatu ahal izateko. Fluxu jarraitu baten barruan, “beharrezkoa dena, beharrezkoa denean, behar adina” hornitu behar da.

Hori posible egiteko faktore bat teknologiak dira (barra kodea edo irrati-frekuentzia bidezko identifikazioa), salgaia askoz zehatzago birjartzeko aukera ematen dute, denbora epe laburragoan, edo baita salgaiak jaso orduko bidaltzeko aukera emanez ere, biltegirik erabili gabe (*crossdocking*). Eta, beste alde batetik, lan-indarraren prekarizazioa dakar berekin, askotan azpikontrata pila bat erabiliz. Helburua bikoitza da: irabaziak ahalik eta handienak izatea soldatak murriztuz, eta aldi berean langileen antolaketa zaildu eta gatazkarako aukera murriztea. Ereduek fordistan ahalik eta irabazi handienak izateko garapen teknologikoaren eta ekoizpen prozesuaren arrazionalizazioaren aldeko apustua egiten bazen

Sektore horietako borroka oso eraginkorrak izan daitezke zailtasunak gaindituz gero, eta azken finean, borroka aukeren errepertorioa birpentsatzeko eta zabaltzeko gonbita egiten dute, sindikalismo klasikoak eskaintzen dituen aukera mugatuen aurrean

(gainbalio erlatiboa), logistikan eta garraioan soldatakurrik murrizteko apustua ere egiten da helburu horrekin (gainbalio absolutua). Horrela ulertu behar dugu janaria banatzeko enpresen jarduna (Deliveroo, Glovo, UberEats, JustEat).

Laburbilduz, ikusi dugu kapitalismoa eskala globalean hedatu dela, metatze beharrei aurre egiteko. Hornidura kateen bidez egiten duenez, *just-in-time* estrategia hartu du, eskariaren aurrean behar duen malgutasuna ematen diona. Hori guztia, irabaziak handitzeko helburuarekin, gero eta nekezago lortzen duena. Horrek lan indarraren prekarizazioa eta azpikontraten hedapena dakar, eta horrek antolakuntza zailtzen du. Hala ere, hedadura geografikoak, zirkulazio prozesuaren konplexutasunarekin batera, Akilesen taloi bat erakusten jarraitzen du kapitala metatzeko prozesuan; hornidura katearen

katebegtako batean huts egiteak eragin suntsitzailea izan dezake bere osotasunean, merkantzian giltzapetuta dagoen gainbalioa gauzatzea eragozten baitu. Horregatik, sektore horietako borroka oso eraginkorrak izan daitezke zailtasunak gaindituz gero, eta azken finean, borroka aukeren errepertorioa birpentsatzeko eta zabaltzeko gonbita egiten dute, sindikalismo klasikoak eskaintzen dituen aukera mugatuen aurrean, hurrengo artikuluan ikusiko dugun moduan. /

 @ikasle_abertzaleak
 @IAbertzaleak
 Ikasle Abertzaleak

M26 ikasle greba
Tasak
merketu,
bekak
hobetu!

#M26greba



Porrotaren lezio krudela

2020. urtean sartu garenetik, askotarikoak izan dira hamarkada amaieraren erreferentzian egin diren hausnarketa kritikoak eta irakurketa politikoak. Azken aldian, ariketa kritiko horri Zutik Euskal Herria dokumentuaren hamargarren urteurrenaren efemeridea gehitu zaio, Ezker Abertzalearen estrategia aldaketaren oinarria izan zena. Eta berriki, Podemos alderdiko «antikapitalisten» banaketa ere gertatu da, zeinak, Espainiako gobernu berriaren osaketarekin batera, M-15 mugimendua izan zenaren porrota sinbolizatzen duen nolabait, krisiaren ondoren irekitako mobilizazio zikloaren behin betiko amaiera gisara. Lehenengo begiradan Zutiken hamargarren urteurrenak eta M-15 mugimenduaren porrotak ezkondu ezineko bi gertakari badirudite ere, prozesu horiek sortutako indarraren produktu edo emaitzari erreparatzen badiogu, antzekotasun zentralak partekatzen dituztela konturatuko gara.

Izan ere, azken hamar urteetan,

Ezker Abertzale Ofizialistak estrategia aldaketaren bitartez eta Podemosek M-15 mugimenduaren bitartez, Espainiako Estatu aparatuetan integratu dute proletalgoaren eta langile mugimenduaren egonezina eta Espainiar demokrazia burgesarekiko desatxikimendu egoera –bere zentzu orokorrean bada ere– eta demokrazia burgesa indartzeko papera bete dute. Langileria-
ren protesta eta borroka adierazpenak politika burgesarekiko independentzian gorpuzten ez badira, funtzionalak dira estatuan integratzeko eta estatua indartzeko.

Ezker Abertzaleko komunitate politikoan modu agerikoan gertatu da prozesu hori azken hamarkadan. Agian, horren formarik begi-bistakoena Sanchezen eta Iglesiasen gobernu osaketa ahalbidetzeak erakutsi du: 60 urtetako borrokaren emaitza alderdi instituzional baten interes elektoralean inguruan antolatutako komunitate politiko gisara egituratzeak merezi dituen sententzia moralistetatik haratago, Ezker Abert-

zale Ofizialistaren bilakaera sintomatikoa den eta ezker mugimenduan ohikoa den fenomeno gisara aztertu behar dugu. Izan ere, Beñat Aldalurrek ondo azaltzen duen bezala, estatu aparatuetan integratuta ageri zaigun egungo Ezker Abertzale Ofizialistaren bilakaera ezin da traizioen eta pertsonalismoen arabera azaldu; kontrara, ezinbestekoa da ahalik eta konplexutasun maila handienera egin behar den historiaren irakurketa kritikoa, printzipio politiko eta estrategikoen garapenari erreparatu behar diona.

Krisialdi ekonomikoak sortutako gizarteko hainbat aspekturen krisi modalitate ezberdinen erreakzioa izan zen M-15 mugimendua, zeina batez ere «bipartidismoaren» krisiarekin lotuta agertu zen. Ia hamar urteren ondoren, gobernuan daude mugimendu horren oinordekotza aldarrikatzen dutenak, eta PCEren bertsio hobetu gisara izendatu ditzakegu, edo behintzat modu eraginkorragoan betetzen dute PCEk bete nahi izan duen papera, alderdi

M-15 mugimenduak zein Ezker Abertzale Ofizialistaren azken urteetako bilakaerak modu krudelean erakutsi diguten bezala (...) sortutako dinamikek zentralizaziorako eta langileriaren antolakunde integrala osatzeko norabidea izan behar dute

sozialistaren ezker hanka izatea, alegia. Kasu honetan, krisian zegoen sistema politikoa berritu eta sendotzeko indar gisara gorpuztu da langile klasearen M15eko espontaneotasuna, ebidentzia hori gutxieneko soldatak jasan duen 50 euroko igoera formalarekin ezkututzen saiatzaren badira ere. Gainera, mugimenduaren sektore eskuindarra ordezkatzaren zuen Errejonen irteerarekin, eta alderdiaren ezker hanka zen Teresa Rodriguez eta «antikapitalisten» banaketarekin, hasierako mugimendutik geratzen zen gutxi hori ere desagertu egin da.

Egoera horrek besteak beste, Espainiar Estatuan 2007ko krisiaren ondotik ireki zen mobilizazio zikloaren amaiera eszenifikatu duela esan dut lehenago, eta ez dago zalantzarik: Estatuak langile klasearen espontaneotasunetik elikatzen jakin du. Hain denbora gutxian zaila da ziklo horren ondorioez bere osotasunean hitz egitea; hala ere, Espainiar Estatuan gertatzen den, baina fenomeno globala delako intuizioa dudan fenomeno aipatu nahi dut: nazionalismoaren igoera. Nazionalismoa ez bere zentzu identitario edo folklorikoenean, baizik eta politikaren muga nazionalen indartze modura. Ikusi besterik ez dago Espainiar Estatua, aktore politiko guztiak nazionalistak dira: espainiarrak, kataluniarrak edo euskaldunak, orokorrean inork ez dauka

dimentsio nazionaletik haratagoko proiektu politikorik. Euskal Herriaren kasura itzuliz, azken hamarkadak espektro elektoral bat egonkortzeko balio izan dio Ezker Abertzale Ofizialistari, baina posizioak argitzeko eta ziklo politiko berri baterako aukerak ere sortu dira. Komuniston erantzukizuna da datorren mobilizazio eta borroka zikloan langileriaren espontaneotasuna, hots, bat-bateko bizi baldintzen aldeko dinamika proletalgoaren indar independente, integral eta zentralizatu moduan gorpuztea, alderdi komunistaren eraikuntza indar moduan egikaritzea, alegia.

Alderdi komunistaren eraikuntza ezin dugu ulertu langileriaren protesta adierazpenen koordinazio forman edo adierazpen horiek gure antolakundee-tara egokitzeko prozesu gisara. Izan ere, politika ulertzeko modu horrek oportunitas bultzako gintuzke, proletalgoaren adierazpen eta bat-batekotasun oro zuzentzen saiatzera mugatuko ginatekeelako. Proletalgoaren espontaneotasunak, alderdiaren eraikuntzaren indarra dena, sozialismoaren printzipio estrategikoak bildu behar ditu bere baitan; bat-batekotasuneko borroka taktikoen garapenak ahalbidetu behar du proletalgoaren maila eta dimentsio guztietako botere zentralizatu eta elkarren artean koherenteak artikulatzea. Leninek Zasulich

«likidazionistari» erantzunez adierazi zuena parafraseatuz, alderdia osotasun bakarreko antolakunde ezberdinen batasuna da. Adar ezberdinetan antolatutako langileriaren antolakunde bat. Gramscik esan zuen alderdia erreminta eta formazio historiko bat dela, zeinetan langilea igarotzen den exekutatzailer izatetik abiarazle izatera, masaren parte izatetik buruzagi edo gidari izatera, beso izatetik burmuin eta borondate izatera.

Horra hor gure erronka. M-15 mugimenduak zein Ezker Abertzale Ofizialistaren azken urteetako bilakaerak modu krudelean erakutsi diguten bezala, langileriaren antolakuntza eta borroka adierazpenak politika elektoralaren arabera antolatzen badira, dinamika horrek politika burgesa gainditzeko dauzkan ezintasunak lehenago ala beranduago estatu aparatuetan integratzera eta erregimen politikoa biziberritzera kondenatzen ditu. Horregatik, proletalgoaren bizi baldintzen hobekuntzen borroka esfera eta maila guztietan eman behar direla ulertzen dugu komunistok, eta sortutako dinamikek zentralizaziorako eta langileriaren antolakunde integrala osatzeko norabidea izan behar dutela. Horri deitzen diogu alderdi komunistaren eraikuntza: urteetako lana izango dela aurreikusten dugun eta ekidin ezin dugun egin behar historikoa. /

EKOIZPEN ARTISTIKO KONPRO- METITUA

IKUSPUNTUA

Maddi
Sarasua



Pelikula edo serie baterako gidoi on bat nola idatzi irakatsi nahian aritu zaizkigu klasean. Irizpide nagusia «funtzionatzen duena» da, publikoa gure pertsonaiekin identifikatzea, istorioa sinesgarria izatea... Ezinezko maitasunak edo tentsio sexualak beti funtzionatzen omen dute, errua, desira, arriskua edo misterioa sartzeak. *Goazeneko* gidoigintza jarri zaigu eredutzat eta zein diren hura idazteko urratsak ikasi ditugu, zer hartu behar den kontuan...

Sinesgarria izatearen eta funtzionatzen duena egitearen izenean baina, dagoena erreproduzitzen eta elikatzen dugu. Eta dagoena, hau da, norma, botere egiturak definitzen du, eta hain justu botere-dunei interesatzen zaie industria kulturalak norma erreproduzitzea, honen determinazio eta inplikazioz azaldu gabe, kontzientziaziorik eragin gabe.

Uste dut audientzia datuetatik eta sare soziale-tako “atsegin dut” eta bihoztxoetatik haragoko kontzientzia baten gainean sortu behar dugula artea. Funtsezkoa da norentzat eta zertarako sortzen dugun galdetzea, mundua interpretatzetik aldatzerako bidea egiten lagunduko digun artea baitugu ipar. Xede berdinetik zebiltzanen esperientziak interesgarri zaizkigulakoan, Sobietar Batasunean emandako artearen inguruko gogoeta eta eztabaidetako batzuk ekarri nahi izan ditut hona.

Ernesto Castrok gai honetaz emandako hitzaldi batean (bertatik hartu ditut hemengo puntu gehienak) aipatzen duen gisara, Gramsci kartzelan eta Frankfurteko eskola erbestean hasten dira gai haue-taz hausnartzen. Esanguratsua da langile mugimen-du politiko errealetik distantzia batera eta, nolabait esatearren, denbora daukatenean ekiten diotelala honi. Hain justu ere, eni behintzat, usu datorkidan



Uste dut audientzia datuetatik eta sare sozialetako “atsegin dut” eta bihoztxoetatik haratagoko kontzientzia baten gainean sortu behar dugula artea. Funtsezkoa da norentzat eta zertarako sortzen dugun galdetzea, mundua interpretatzetik aldatzerako bidea egiten lagunduko digun artea baitugu ipar

buruhaustea horixe baita, denborarena. Benetan dikedatu behar al diogu momentu honetan denbora arte sorkuntzari? Lehentasuna da?

Lehenik eta behin, memoriaren gaia mahaigaineratu nahiko nuke. Gaur egun elikatu nahi dugun zerbait transmititzen duten, aurreko garaietatik datorzkigun obra batzuk berreskuratu eta gure egitea bezain, alderantziz, nahi ez dugun zerbait transmititzen dutenak seinalatzeak badauka bere garrantzia. Izan ere, arte orok darama berekin, izan kontzienteki ala inkontzienteki, gauzak ulertzeko eta adierazteko era bat, hartzaileagan eragina daukana. Arte ekoizpenak interpretatzeko eta epaitzeko gai izatea eskatzen du honek.

Arte sobietarraz hitz egiterakoan, hastapenean gerla zibilaren garaiaz, ezinbestean aipatu behar dugu Proletkult. Arte proletarioa egin nahiak hura zer zen problematizatzer a eraman zituen. Proletarioek ekoiztu arte oro ote da proletarioa? Ezinbestean izan behar al du arte proletarioak proletarioek ekoiztua? Burges batek ezin du arte proletariorik egin? Gogoeta eta eztabaida hauei ematen zitzaien lekuaren erakusle da «kult intern» deituriko internazional bat antolatu izana kultura proletarioaren inguruan.

Abangoardia kulturetaren eta herriaren arteko bereizketaren auzia azaleratzen da hauen eztabaidetan. Lauaxeta, Lizardi eta Orixe datozkit eni burura, eta nola, euskal literatura kultura egitera bultzatuz, abangoardia rola ematen zitzaien euskara eta abertzaletasunaren berpizkundean. *Proletkult*en buruhauste nagusia zen, nola antolatu kultura bat, aldi berean oinarriarena eta proletarioa, baina ez konformista, hau da, ez dena egunerokoaren ikuspegira mugatzen. Erantzunaren intuizioa bizi

dukegu gure azaletan: antolakuntza esperientziatik ematen dela langile klasearen kontzientziazio eta inizatiba hartzea.

Arte anti-burgesa egiten zutela erran izan da, baina problematizatu dira proletarioa «ez denarekin» definitzearen mugak, proletarioa soilik ez burgesa bailitzan. Izan ere, gizarte antolaketa modu ezberdin baten eraikuntzarekin batera, hainbat elementu kultural eta ohitura barneratzen joan beharko gara, kosmobisio eta etika ezberdin baten baitan. Hau elikatzen lagun lezake arte proletarioak.

Troskik arte iraultzailea eta arte sozialista bereizi beharra aipatzen du. Arte iraultzailea, *estatus quo*arekiko haustura bultzatzen duena litzateke, arte sozialista berriz, elkartasun proletarioaren baloreak sustatzen dituen. Guk gaur egin genezakeen gisan, «gora artista konprometituak!» oihukatzen irudika genitzake garai hartan, eta interesgarriena zaigu, haien aburuz arte konprometitua zertan zetzan ikustea.

*Prolet kult*en, agitazio eta propagandan aurkitu zuten artistek euren ekarpen artistikoaren zentzua, literatura eta arte plastikoa lotuz, kartel ikusgarriak sortzen zituzten. «Literatura alderdia bihurtu behar da» formulatu izan zitzaien, artistak arimaren ingeniariak direla eta edukiak ilustratu eta herriari irigarriak egitea dela euren rola.

Arte obra on bat baina, ezin da propaganda hutsa mugatu. Ideia berriak aurreikusi eta sortzen dituen dela arte obra ona zion Lunatxarski, Sobietar Batasuneko hezkuntza eta kulturaren komisarioa izan zenak. Kritika marxista hiru printzipioren gainean oinarritu beharko litzateke haren ustez: Lehenik eta behin, ez litzateke propaganda hutsa dena onartu beharko, ezta ideia biluzien gaineko litera-





turarik ere. Jada guztiz garatuak dauden euren programako puntuak plazaratzen dituen idazlea artista txar bat dela deritzo. Bigarrenik, «ez dela arterik berrikuntzarik gabe» diosku, edukia berria izan behar da, adierazia ez den zerbait adieraztea da artistaren lana. Honek sarri, forma berri bat eskatzen duela eranstzen du.

Azkenik, Lunatxarskiren ustez, obra batek potentzialki unibertsalki ulertua izatea ukan behar du xede. Isolatzea eta ez ulertzea eragiten duten formak baztertu behar lirateke, helburua ez baita esteta espezialisten zirkulu ttipi batentzat ekoiztea. Dena den, kritiko marxistek iraganeko eta oraineko obrei meritu intrintsekoa aitortu behar dietela aipatzen du. Kondenatu beharrekoa artistaren marko mentala da, hau da, metodo formalen bidez erreallitateetik urrundu nahia. Laburbilduz, balio estetikoak aitortu bai, baina obra hauen sorgai izan den marko kontzeptualari kritika egin behar zaiola dio Lunatxarskik.

Sobietar Batasuneko bigarren fasean bereziki (1922-1927 urteetako testuinguruan), arte burgesarren balioaz eztabaidak sortzen dira. Leninek Danteren Divina Comediak garaiko mentalitate burgesa aztertzeako balio digula azaltzen du. Troskik aldiz, Danteren balioak ez datzala horretan erantzuten dio. Haren iritziz, Danteren arteak nolabaiteko balio estetikoak ukaiten jarraitzen badu, ez da burgesa delako, baina burgesa den arren, formazko eta edukizko osagai jakin batzuk dituelako, garai historiko oro transzenditzen dutenak. Troskik arteari klase sozial jakin bat transzenditzen duten balio estetikoak aitortzen dizkio.

Ezin aipatu gabe utzi formalismoa. Ernesto Guerarak formalismoaren ekarpen nagusia, hartzailearen mundu ikuspegia estetikaren bidez eraldatzearen

Antolatuaren gaineko espontaneotasuna da artea. Kontua da oinarria nola dagoen antolatua eta zer elikatzera datorren espontaneotasuna. Izatekotan, zeren gainean eraikia den kontzientzia hartzetik askatuko da arte sorkuntza, ezta?

ideiaren atzean zegoen benetako konpromisoan ikusten du. Distantziamendua edo desfamiliarizazioa jarriko dute formalistek artearen oinarrian, kulturari kontrajarririk. Artearen helburua ez da obra eta publikoaren artean katarsi edo identifikazio erabatekoa sortzea izanen, distantziate eta zailtze bat baizik, ikuslearen ikuspuntu emozional edo biografikoan hausnarketa eta mugimendu bat sorraraziko duena. Horrela, alienaziotik ihes egitea da helburu, kultura edo zentzu komun ideologikotik askatuz, egiazkora hurbiltzeko.

Antzerkia har liteke adibidetzat. Garai hartan, atzerriratze edo harritzea izanen dira artearen tresna nagusia forma berriak sortzeko, beti ere, langilearen desalienazioa helburu dela. Talka estetiko baten bidez hartzaileagan gaizki izate bat probokatzeko da xede, norbere egoera pertsonalaren gaineko beste jarrera bat hartzera behartzeko. Gaur egun ere baliatzen dira berrikuntza, probokazioa eta txokea, baina zer helburekin?

Azken puntu gisara, «Ez da sorkuntzarik askatasunik gabe» esaldia hartu nahiko nuke. Ez noski askatasuna zentzu abstraktu edo burgesean ulerturik, oinarri antolatuaren gaineko arte espontaneo, intuitibo, irudimentsua aldarrikatzeko baizik. Antolatuaren gaineko espontaneotasuna da artea. Kontua da oinarria nola dagoen antolatua eta zer elikatzera datorren espontaneotasuna. Izatekotan, zeren gainean eraikia den kontzientzia hartzetik askatuko da arte sorkuntza, ezta? Esperientzia libreria ateak zabalik baina oinarriak sendo, arte askea baino, askatuko gaituen artea nuke amets. Baina askatuko gaituen ez dela artea izanen dakigunez, askatze bidean ekarpena egin dezakeen arte konprometitua defendituko nuke. /

Argitaraturik
2020KO MARTXOAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa eta Erredakzioa
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER @**GEDARLANGILEKZ**
INSTAGRAM @**GEDAR.EUS**
FACEBOOK @**GEDAR.EUS**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
GR 1731-2019

Lizentzia



MARTXOAK 3



Martxoak 3
Gasteizko sarraskia



1976

